

Nafarroa, Aragoi eta Zuberoa batzen diren ekialdeko azken mugetan hizkuntzalarien jakinmina piztu duen hizkera berezi bat mintzatu da duela gutxi arte, Erronkaribarreko berezko mintzaira genuen eta erronkariera zuen izena. Bonaparte printzeak egin zituen lau sailkapenetan zubereraren azpieuskalkitzat jo zuen arren, 1872an argitaratu *Etudes sur les trois dialectes basques des vallées d'Aezcoa, de Salazar et de Roncal* liburuan euskararen bederatzigarren euskalkia izan zitekeela zioen. Izan ere, urte batzuk geroxeago Arturo Campion jaunari bidalitako gutun batean erronkariera ia euskalki independientetzat jo zuen. Ildo beretik, XX. mendearren hasieran R. M. de Azkuek *Particularidades del dialecto roncalés* artikuluan erronkariera euskalkia zela aldarrikatu zuen; honezkerro, hizkuntzalari gehienek erronkarieraren jite berezia onartu eta Azkueren iritzia ontzat eman dute.

Bonaparte printzeak hiru azpieuskalkitan banatu zuen erronkariera: hegoaldean Bidankozekoa (Gardeko eta Burgiko mintzairekin batera), erdialdean Urzainkikoa (Erronkariko hizkera barne) eta iparraldean Uztarrozekoa (bertan Izabako euskara ere sartzen delarik). Hiru azpieuskalki hauek eragin ezberdinak jaso dituzte: alde batetik, Bidankozekoak Aragoiko eta Nafarroako erromantzearen eragina jaso du Zaragozako Salvatierra de Esca eta Huescako Anso herriak mugakide dituelako; bestetik, Uztarrozekoak zubereraren eragina jaso du, toponimian Biarnoko erromantzearen eragina nabaritzen delarik; azkenekoz, Urzainkiko azpieuskalkia beste bietan gertatzen ziren bilakaera gehienen adierazle dugu, halabeharrez, geografikoki haien artean kokatua zegoelako.

Esku artean dugun artikulu hau burutzeko, ondoko bi lan hauek oso kontuan izan ditut: bata, Azkueren aipaturiko idazkia (*Particularidades del dialecto roncalés*) eta, bestea, Mitxelenak erronkarierari buruz idatzi zuena (*La posición fonética del dialecto vasco del Roncal*); euskalki honen deskribapena taxuz egin nahi bada, ezinbestekoa da artikulu hauek ezagutzea. Haiek bezala, honek ere erronkarieraren ezaugarri nagusiak deskribatzea du helburu, baina kasu honetan toponimiak ematen duen laguntzaz, hiztunak hil direlarik, oraindik bizirik dagoen azken lekuko bakarra bera delako.

## A) DESKRIBAPEN FONETIKO-FONOLOGIKOA

### 1. BOKALISMOA

Erronkariera euskalki berezia dugu, euskararen ohiko bost bokal ahokariak izateaz gainera /a, e, i, o, u/, beste bost bokal gehiago zituelako, hauek sudurkariak izaki: /ã, ē, ï, ò, ù/ (zuberera ere beste euskalkiengandik aldentzen da nabarmen, ahokariez gainera bokal ezpainless bat duelako: /ü/).

Bokal hauek balio fonologikoa zutenez gero, esaldiaren zentzua alda zezaketen; adibidez, *su* hitzak ‘su garra’ adiera zuen, baina *sū* hitzak ‘suhia’ esan nahi zuen; gauza bera gertatzen zen beste zenbait hitzekin (*atze* ‘gibel’, *ātze* ‘ahantze’; Mitxelena 1954: 276) baina, egia esan, ahokariak ziren erabilienak eta, uste baino lehenago, sudurkariak pixkanaka-pixkanaka galduz joan ziren. Esaterako, jakin badakigu XX. mendearen hasieran Bidankozkoen Uztarrozen baino gehiago erabiltzen zirela eta mende horren erdialdean azken herri honetan Izaban baino gehiago (Azkue 1931: 212 eta Mitxelena 1954: 276); baina 1988an, Ricardo Gomez irakaslea Uztarrozera joan zenean ezin izan zuen bokal surdurkaririk entzun, ordukotz bokalen surdurkaritasuna guztiz galdua zegoelako (Gómez 1991: 391).

Esanak esan, bokal sudurkariak oso arruntak ziren alde honetako toponimian. Agiri batean kontsonante sudurkariaz idatzitako toponimo bat irakur dezakegu eta beste batean kontsonante gabe, honek argi erakusten digu trabatu gabe geratu den bokalak surdurkaria izan behar duela nahi eta nahi ez: izan ere, Burgin, *Alchonbide* eta *Alchobide*, biak 1523an dokumentatuak, baina bi modutara idatziak. Bestalde, grafiak berak tilet baten bidez bokalaren surdurkaritasuna erakus dezake: Garden *Mēdivelça* (1561), Erronkarin *Aræzqujra* (1480) eta Urzainkin *Īguruñea* (1656).

Edozein modutan, XVI. mendean ezaugarri hau azpieuskalki guztietaurki zitekeen: Bidankozekoan, *Arañ* (Bid.), *Ugañañ* (Bur.), *Urdazpe* (Bur.); Urzainkikoan, *Arākoa* (Err.); Uztarrozkoan, *Kabatāburu* (Uzt.) eta *Arañcougatxa* (Izb.; 1567an *Arayncougacha* eta 1828an *Aracougacha* grafiaz dokumentatua).

Badira, halaber, diptongo sudurkariak: Uztarrozen, adibidez, *Donayne berroa* (1588) eta kontsonante sudurkaria galtzean, *Doayverria* (1631). Erronkarieraz diptongo sudurkari bat beste bokal batekin lotzen zenean surdurkaritasuna ez zen galtzen, aitzitik, /aī+ bok./ → /aŷ + bok./, esaterako, *Doay a verroa* (1630). Bonaparteren iritziz (1869: II, xxix), kasu hauetan bokal sudurkaritik sortzen zen /ŷ/ fonema kontsonantikoaren ebakera sudurkari gutural busti batena zen, edo bestela esanda, ñ izatera iritsi gabe, aski antzekoa. Izaban, adibidez, *baia* (hots *baña*) dugu, eta ez *baina*.

Hortaz, bokal sudurkarien eragina nabarmena izan da erronkarieraz eta horretaz ohartu beharra dago, baina ez dugu horregatik bokal ahokarien garrantzia ahantzi behar, aitzitik, baldin eta erronkariera deskribatu nahi badugu bokal hauek jasan zituzten bilakaerak ahalbait ondoen ezagutu behar ditugu eta horietaz ikasi; hau dela eta, horixe izanen da hemendik goiti, harik eta kontsonantismoaren atala hasi arte, gure helburua.

## 1.1) Irekiteak eta txandakatzeak

a) *u > i*

Mitxelenak (1954: 278) irekiera minimoa jasan duten Uztarrozko hitz hauek aipatzen ditu: *errin* orok. ‘errun, erron’, *ortzikaldi* ‘ausiki’, literalki, ‘hortz ukaldi’, *kikoso* ‘arkakuso’ eta Erronkaribar osoan, *korpiz* ‘gorputz’. Era berean, *zuloa* > *ziloa* garapena ibarreko azpieuskalki guztietaurki gauzatu zen: Bidankozko azpieuskalkian, *Arxiloa* eta *Atxintxiloa* (Bid.), *Ibarziloa*

(Bur.), *Arxiloa* (Gar.); Urzainkikoan, *Uturxiloa* eta *San Juanxiloa* (Err.) eta Uztarrozko azpieuskalkian *Kañadaxiloa* (Izb.). Bilakaera hau ezaguna da. Halaber, ebakera-puntuaren aurreraketa disimilazioaren ondorioz gerta daiteke: *Amucu* (Uzt. 1614), baina *Amuqui* (1645).

b) *u : o* (txandakatzea)

Atzealdeko bokal goikoa irekitzen denean *o : u* txandakatzea gertatzen da (Izaban *Borda Oturburúa* [1946] eta *Oturuburua* [1974]). Esate baterako, *iror* eta *irur* hitzen txandakatzea garrantzi handikoa izan zen Erronkaribar osoan, izan ere, Bidankozko toponimian bi aldaerak dokumentatzen dira, *Irormayeta* (1892) eta *Irurmayeta* (1892); Uztarrozkoan *Iruchasarea* (1648) toponimoa dugu.

c) *o : e* (txandakatzea)

Erronkarieraz txandakatze hau ez zen batere arrunta; dena dela, era honetako adibide bat jaso dugu Izaban: *Donamarialtea* (1622), baina *Denamarialtea* (1634). Aita Barandiaranek (1972-1: 27) Ostabateko *Andre Dena Mariako Iturri* toponimoaren berri ematen du; kasu honetan atzealdeko bokalaren aurreratzea asimilazioaz gertatu da. Era berean, asimilazioak *e : o* txandakatzea eragiten ahal du: Bidankozkoen, *sonto* ‘sendo’, *sontotu* ‘sendotu’; Uztarrozen, *sentotu* (Mitxelena 1954: 278); hala ere, txandakatze hau ez da arrunt erabilia eta toponimian nekez aurkituko dugu adibiderik (ik. beherago, asimilazioari buruzko atala: A § 1.4).

d) */e/-ren irekitzea*

Dardarkariaren aurreko */e/* bokalaren irekiera gertatzen ez bazen ere, antropónimian eta toponimian bilakaera honen zenbait lekuko dokumentatu dugu. Oro har, testigantzak hagitz berantiarrak dira; izan ere, XVII. mendeko adibideren bat kenduz gero, gainerakoak XIX. mendekoak ditugu:

Bidankozko azpieuskalkiko Garden *Yribarri* (1644; *Yriberry*, 1573) eta Burgin *Urdazpe Chicarra* (1896; *Vrdanzpe chiquerra*, 1642). Ahozko mintzairan bilakaera honek ez zuen inolako arrakastarik izan, *txiker* hitza erabiltzen baitzen; cf. Mendigatxa: *Abentu Txikerreko 29na* (Estornes Lasa 1984: 73); “Eta cola norbaitec quebrantabaleza edo autsbaleza mandamentu cuetaric bat *chiquerrago* urdu izanic ere...” (Hualde Mayo 1935: 535). Bidankozko toponimian, *Aquerregua* eta *Acarregua* aldaerak ditugu, biak 1892an dokumentatuak.

Urzainkiko azpieuskalkiari dagokionez, 1581ean *Ernega* (Err.) zeritzan aurkientzari 1836an *Arnaga* izena eman zioten. Orobak, Burgiko sorginen aurkako auzian (1569) *arnega* hitza irakur daiteke (cf. lat. *re-* + *negāre*): “... las palabras formales que les decia la dicha María Lucea a esta que depone sobre el renegar, era (“renegad, chicas de Dios”), en lengua bascōguada de esta tierra: *Aurrac*, *Arnega eçaçuey Jangueycoaz eta andredonamariaz eta sayntu eta saynta guçuez eta andredonamariac eta Santa Annac eztuey Aurric*, Que, a la letra, quieren dezir en Romance: “creaturas, o, chicas Renegad de Dios y de nuestra señora Santamaria y de todos los santos y santas y nuestra señora ny sata anna no tienen hijos””.

Uztarrozeko azpieuskalkiko Izaban *Berroeta* (1345), *Berrueta* (1565) eta *Barrueta* (1986) aldaerak ditugu eta Uztarrozen *Arrzanagarre* (1676) eta *Arzanagarra* (1723).

Antropominian adibide hau jaso dugu: *Cherrail* (Urz. 1802), baina *Charrail* (Bur. 1960).

Bestalde, -ei diptongoa lekuizen elkartu baten lehenengo osagaiaren bukaeran dagoenean -er bilaka daiteke eta hemendik, ondorioz, -ar erator daiteke: *Yzeybacochea* (Uzt. 1676), *Icerbacochea* (1806) eta *Izarbakotxa* (1995); *Izarmurua* eta *Izarburia* (< izei buru.a; Uzt. 1994); *Yzerdoya* (< izei doi.a; Uzt. 1892) eta *Ixardoia* (Gar. 1724; *Ixardoia*, 1994).

#### e) Elkarketak eragindako irekierak

Erronkarieraz, gainontzeko euskalkietan gertatzen den bezala, hitz elkartu baten lehenengo osagaiaren azken bokal erdikoek /a/ bilakatzeko joera nabaria dute. Adibide ugari ditugu azpieuskalki guzietan:

-e# → -a#: Bidankozeko azpieuskalkian *Aizagar* dugu (Bid. 1892) (*h*)aize ager oinarritik eratorria. Honetaz gainera, *Lurtepea* eta *Lurtapea* biak 1892ko kadastran dokumentatuak (halere *lurte* hitza ‘éboulement de terres’ (Rohlfs 1977 § 80) Aragoiko Ansó, Echo eta Urdués aldean ibiltzen dute gehien bat, Erronkarin eta Zuberoan *lurta* nagusi delarik). Burgin *Artadoya* (< arte doi.a; 1896) eta *Izalorra* (< izei alor.a; 1896), Garden *GardalaSa* (< Garde lats.a; 1646). Urzainkiko azpieuskalkian *Urdalecea* (Urz. 1594) eta halaber *Lezagurria* (1740; *Lezegorria*, id.). Erronkarin *Echaberri* (1345), *Atazabala* (1836; *Atezabala*, id.). Uztarrozeko azpieuskalkian *Artaguia* (1614), *Asta guibela* (1676; *Asteguibela*, id.), *Erlateguia* (1806). Izaban *Esabacochea* (1564; baina *ESebacochea*, 1650). Bestalde, Uztarrozen jaso ditugun *Yragoyensaysa* (1677) eta *Iragoine* (1806) lekuizenetan lehenengo osagaiaren azken bokala erabat ireki da, nire iduriz i > e bilakaera tarteko dela; alegia, (*h*)iri- > \*ire- > ira-; cf. Urzainkin, *Yregojen* eta *Yregojene* (1601).

-o# → -a#: Garapen honen adibide ugariak ditugu Erronkaribar osoan; Bidankozeko azpieuskalkiko Burgin *Basagacha* (1849) dugu, *baso gaitz-a* oinarritik eratorria. Garden *Laztateguia* (1570). Urzainkiko azpieuskalkian (Erronkari): *Baga artea* (1646), hots, *bago arte-a*. Uztarrozeko azpieuskalkian *Carro cubia* (1665; ‘gurdientzako zubia’) eta *Carrazubía* (1806); *Osollarrencueta* (1806) eta *Osallarrencueta* (1806); *Ochogorri* (1859), baina *Osagorria* (1678). Izaban *Bagadoy carra* (1644), *Bagaxiloa* (1624).

Lekuizen elkartu baten lehenengo osagaiaren bukaeran kausitzen den bokal erdikoaren irekiera ez da testuinguru guzietan gertatzen. Aitzitik, zenbait ingurunetan egonkorra dugu; hau da, elkar ukitzen dauden bokalak bikoiztu edo murriztu daitezke inongo irekierarik jasan gabe baldin eta ebakera-puntu berbera badute: *Bagordoqui* (Bid. 1620), *Bago ordoqui* (Urz. 1636). Bidankozeko adibidean murrizketa gauzatu da eta Urzainkikoan bikoizpena, baina, esan bezala, ez da irekierarik gertatu. Esan nahi baita bilakaera ez dela nahitaezkoa eta, sarritan, lehenengo osagaiaren bokala gorde dela, ondoko adibide hauek erakusten duten bezala, *Zocoandia* (Bid. 1898), *Basobacochea* (Izb. 1345) eta *Bagomalta* (Izb. 1623).

## 1.2 Hersketak eta txandakatzeak

### a) i > u (ezpainkaritza)

Erronkarieraren azpieuskalki guzietan i > u hersketa zertu da. Hori dela eta, kontsonante apikari baten aurrean dagoenean /i/ bokal erdikoa ezpainkari bilaka daiteke; honela Uztarrozen *utaxúr* hitza dugu (hau da, ‘itaxur, itaizur’) eta, oro har, erronkarieraz *tutare* ‘ditare’. Uztarrozeko toponimian *Litoa* dokumentatu dugu 1593an (*lito* ‘leku sakona’), baina aurkientza berberari *Lutoa* esaten diote egun (zubereraz, *lútho* ‘creux’, ‘caverneux’; Rohlfs 1977 § 79 eta Mitxelena 1977: 81). Bestalde, ezpainkari batek alboko bokala eragin dezake bere tasunaz kutsatuz: *zerbutxu*, *zerbutxari* eta, baliteke, *eburni* edo *iburni* ‘infernu’ (Mitxelena 1954: 277). Izan ere, Urzainkiko toponimian *Garbiçaqua* (1561) eta *Garbucacua* (1596) ditugu. Beste ingurune batean, Bidankozeten *Eguillorry* (1629) eta *Egullore* (1626), (*h*)egi le(g)or hain zuzen ere.

### b) e : i txandakatza

Aurrealdeko bokal erdikoaren ixtea arrunta da Erronkaribarreko azpieuskalki guzietan, bai mintzairan, bai eta toponimian ere. Eguneroko hizkeran bokal itxia garatu zuten hitzak entzuten ziren: *ixiki* ‘izeki’, *eri bátza* ‘eri behatza’, hots, ‘hatz lodia, erpurua’, *biárri* ‘belarri’ (Mitxelena 1954: 276), *Ama Berginaganic*, *birgen*, *virginari* (Gómez 1991: 396). Toponimian era bereko lekuizenak genituen: Bidankozeko azpieuskalkian, Burgin, *Lexardoya* (1626) eta *Lixardoya* (1662); Garden *Ylurriaga* (1615; geroxeago, *Elurriaga* [1646]); Bidankozeko Mariano Mendigatxa jaunak *illurria* hitza ibiltzen zuen: “Arbole apaletarik obroen aztandenetarik dra, ezpela, *illuria*, corostia eta otaka” eta “*Illurriak* ere eguiten du su ona; zurginek chercatandei ardatz eguiteko” (Irigoién, 1957: 131). Herri bereko toponimian *Belasco* dokumentatzen dut 1728an, baina askoz ere lehenago, 1652an, *Bilasco* genuen eta beranduago, 1771n, *Billasco*. Urzainkiko azpieuskalkiko Erronkarin: 1616an *YJeraberrieta*, hots, *eiheraberrieta*. Uztarrozeko azpieuskalkiko Izaban 1563an *Artemendia*, baina 1916an *Articomendia*.

Bestalde, leku askotan ezaguna den [eč] > [ič] (hau da, *etxe* > *itxe*) bilakaera<sup>1</sup> erronkarieraz gertatzen ez den arren, toponimiari kontu egiten badiogu Bidankozeko azpieuskalkian joera guztiz ezezaguna ez zela ikusiko dugu: Burgin *Bacarechea* (1626) eta *Bacarichea* (1660); Garden *Echalanta* (1675) eta *Ichilanta* (1721). Urzainkiko azpieuskalkian ez da gauzatzen; aitzitik, hiperzuzenketa dela medio, kontrako bilakaera egokitu da: *Chicharana* (1589), baina *Checharena* (1836). Uztarrozeko azpieuskalkian [eč] edota [eć] egonkorrik dira: *Esabacochea* (1564). Hala ere, [i + eć, eč] > [ič, ič] bilakaera azpieuskalki guzietan ezaguna izan zen: Bidankozeko azpieuskalkiko Burgin, *Sayssa* (1649), hots, *saihetsa*. Urzainkin *Sayz ederra* (1643), hots, *saihets ederra*. Uztarrozen, XIV. mendean, *Burgi Echamendia* (1345), baina XIX. ean *Burguisamendia* (1828).

1.– Cf. Azkue 1905-6, s.v. ‘itxe’ (“AN-bera-goiz-irun-ond-oy”) eta OEH, s.v. ‘etxe’ (“itxe [V-gip, G-azp, AN-gip-5vill-araq-ulz-olza-gulina]”).

Beste puntu batera igaro baino lehen aipatu behar da erronkarieraz /i/-ren irekierak berak ere txandakatzea eragin zezakeela: hitz hasieran *Ibamberro* (Urz. 1593) eta *Ebaynberro* (1585), hitz barnean *Arrigachaga* (Bur. 1642) eta *Arregachaga* (1896) eta hitz bukaeran *Logasti* (Bur. 1750) eta *Logaste* (1778). Gai honi loturik, jakina da erronkarieraren adizkien hitz hasieran /e/ izan dezakegula beste euskalkietan /i/ dugun kasuetan; alegia, egokiera hau gauzatzen da: erron. /e/ : orok. /i/; izan ere, cf. Antonia Anaut andrearen hitzak, *ekusi ‘ikusi’*: “...eta órai xín, ámaren *ékustra...*”, *ebili ‘ibili’*: “*èbilitan nazéla... ébil... ébil èino’re bái*”, *ekuzi ‘ikuzi’*: “egutxára eta zánkoak *ékuz eta...* buría ere bái...”, *etzuli ‘itzuli’*: “orái beláizurik egutxán sar kán guziak *ètzulukaka*” (Artola 1977: 88, 92).

c) o : u txandakatzea

Gorago esan bezala, o : u txandakatzea /u/-ren irekitzearen ondorioa izan daiteke; baina, halaber, /o/-ren ixteak txandakatzea eragin dezake. Honela, Bidankozeko azpieuskalkian *Baraco* (Bid. 1652) eta *Baracu* (1658) lekuizenak ditugu. Dena den, kontuan hartu behar dugu /o/-ren ixtea ez dela ohiko kasuetan gertatzen; aitzitik, beste euskalkietan hitz bukaeran eskuarki gauzatzen den /-o/ > /-u/ bilakaera erronkarieraz ez da agitzen; alegia, *soldado* eta *komento* ditugu erronkarieraz, eta ez *soldadu* edo *komentu* (Azkue 1931: 215). Txandakatzea zubereraz erronkarieraz baino usuago aditzen da, euskalki hartan sudurkari baten aurrean u ezar baitaiteke (*gizun, hún, úndar eta úntzi*), erronkarieraz, ingurune berean o dugularik (*gizon, on, ondar eta ontzi*; Mitxelena 1954: 277). Nolanahi ere den, txandakatzearen adibide ugari ditugu Erronkaribarreko azpieuskalki guztietan: Bidankozeko azpieuskalkian *Badolate* (Bur. 1562) eta *Badulate* (1670); Urzainkiko azpieuskalkian *Ayçoygua* (Urz. 1599) eta *Aizuguia* (1802); Uztarrozeko azpieuskalkian *Osanea* (Izb. 1892) eta *Usanea* (1992). Txandakatzea ahozko mintzairan ere bizirik zegoen, Izabako Antonia Anaut andreak *oren bakutxa ibili* baitzuen Koldo Artolarekin izandako laugarren elkarrizketan (Artola 1977: 90).

Txandakatze honen arrazoiak ez daude batere garbi; Mitxelenak (1954: 277) *xardoki ‘iharduki’* (hots, ‘mintzatu’) eta *eroki ‘eduki’* hitzak aipatzen ditu eta, halaber, -ke morfema hartu duten \**edun* aditzaren adizkiak, hauek bokal erdikoaz jokatzen direlarik: *doke, dozke, ginokezu*, e.a. Ildo beretik, toponimian dokumentatzen diren kasu askotan dardarkari bat dugu alboan. Gorago erakutsi den bezala, dardarkariak /e/ bokala ireki dezake; hori dela eta gerta liteke, apika, /u/-ren irekiera ere gauzatzea: *Arrburua* (Err. 1676) eta *Arrborua* (1672), *Vrdaytte* (Izb. 1634) eta *Ordoiti* (1992). Hala ere, kontrako kasuaren adibide ugari dugu: *Elorria* forma arruntaren ordez, *Elurria* (Gar. 1621), *Lezagorria* (Urz. 1740) eta *Lezagurria* (id.), Izaba eta Ansoko mugan *Corriza* (1615) eta *Sorica* (1648), baina *Zuriza* (1668), Uztarrozen *Ellorridoya* (1806) eta *Ellurridoya* (id.). Garden *Allorcoa* (1722), hots, ‘alor txikia’, Uztarrozen eta Izaban adigai berberari *allurkoia* izena ematen zaio; txikigarrik gabe, *alur*; Antonia Anaut: “Eta nóntik xíta da? Álurretik. Álurrètik? eta zér egitan du órrek álurrian? lan, lan” (Artola 1977: 85). Zaraitzueraz ere *alur*. Mitxelenak (1954: 277) *lur* hitzaren eragina nabaritzen du hemen.

### 1.3) Inesiboaren hatza

Erronkaribarreko lekuizen askotan lexemaren eta mugatzailearen artean /e/ bat entzuten dugu, inesibo zaharraren hatza. Izan ere, *aurre*, *atze* eta gainontzeko postposizioetan aurkitzen dugun

bokala lekuzko kasuetan eransten den bera da, atzizkia ez baitzaio temari zuzenean lotzen, zeharka baizik, ondoko adibideetan erakusten den bezala tarteko -e- baten bidez: *barren-e-an*, *egun-e-an*, e.a.; cf. Mitxelena 1977: 133 eta Azkue 1905-6, s.v. ‘atze’. Hona hemen Erronkaribarreko toponimian kausitu zenbait adibide:

Bidankozeko azpieuskalkian *Arainguiblea* (Bid. 1892) eta *Aranguibelea* (1898), alegia, *(h)aran gibel-e-an*; *Celeiguiblea* (1892) eta *Celeiguibelea* (1898), alegia, *zelai gibel-e-an*. Halarik ere, XIV. eta XV. mendeetako adibideetan inesiboak ez du bere hatzik utzi: *Arguibela* (1345) eta “la part de *Arguibela*” (1427). Burgin *Aranea* (1630) eta *Cabalea* (1566). Garden *Seisea* (1660.02.13: GAR.47.pro). Herri honetan *Haranea* (1595) eta *Arana* (1649) ditugu; XVI. mendeko aldaeran inesiboaren marka tartekatu den bitartean, XVII.ekoan ezabatu da.

Urzainkiko azpieuskalkian *Gaztulugainea* (Urz. 1802). Erronkarin *Torreguibelea* (1636; nire informatzaileak *Gibelea* esan zidan) eta *Sancho Miguel Alorea* (1836). Lekuizen hauetaz landa adibide gutxi jaso dugu, hizkera honetan aipatu bilakaera ez baitzen beti gertatzen: *Arana* (1607), *Gardibarra* (1836), *Ybarra* (1836) eta ez *Aranea*, *Gardibarrea* edota *Ibarrea*.

Uztarrozeko azpieuskalkian *Caualea* (Uzt. 1610) eta *Baracea* (1768) lekuizenak ditugu. Izaban *Belaybarrea* (1563) eta XIX. mendean inesiboaren arrastorik gabeko aldaera bat *Belaibarra* (1828); *Osanea* (1892) eta *Uchanea* (1993); *Saysea* (1664); *Saisondarrea* (1828), e.a.

### 1.4) Asimilazioa

a) e...i | i...i (eki- | iki-) atzeranzko asimilazioa

Bilakaera hau oso hedatua zegoen arren, Bidankozeko azpieuskalkiko toponimian ez da sarritan gertatzen: *Equiaderra* (Bid. 1892; egun, *Ekiderra*), *Equiluce burua* (Bur. 1625). Hala ere, asimilazio mota hau gauzatzen zela argi dago, alde batetik toponimian zenbait adibide dugulako (*Doni Bicginti*, Bur. 1596) eta, bestetik, Mendigatzak Azkueri bidalitako gutunetan garapen hau maiz suertatzen delako: “Yzeya eta lerra aztan dra oxezkietan; bagoa sierretan; aretxa *ikialtetan*; eta artakarroa peña errieta” (Estornes Lasa 1984: 74). Urzainkiko eta Uztarrozeko azpieuskalkietako toponimian, berriz, asimilazio mota hau hagitz ezaguna da: Erronkarin *Yquialtea* (1836) eta 1601ean Uztarrozen homonimo bat dokumentatzen da grafia berberarekin, 1806an *Icaltea* bezala idatzita agertzen den bera. Izabako toponimian aldaera asimilatuak eta asimilatugabeak tartekatzen dira, asimilatugabea zaharrena izaki: *Equialterrea* (1564), baina halaber, *Icalterrea* (1828).

b) e...u | u...u (gaztelu | gaztulu) atzeranzko asimilazioa

Mitxelenak (1977: 79) asimilazioak jotako adibide hauek aipatzen ditu: *garraztulu* (zubereraz *arrastélü*), *gaztulu* (zubereraz *gaztélü*, latinez *castellum*). Maisuaren iritziz litekeena da e...u | u...u bilakaera honetan i...u tarteko urrats bat izatea, *ainguru* hitzaren garapenean gertatu den bezala. Bidankozeko azpieuskalkiko toponimian joera ezberdinak nabaritzen dira: Bidankozen ez da bilakaera hau lekuizenetan islatzen, irakur daitekeen aldaera

bakarra *gaztelu* delarik: *Gazteluzarra* (1892). Burgin, berriz, bilakaera gauzatzen den arren guztiz berria dela dirudi: XVII. mendean *Gaztelucarra* (1626), XVIII.ean *Gaztelualtea* (1722), baina XIX.ean *Gaztuluzarra* (1896). Era berean, Garden, XVII. eta XVIII. mendeetan bilakaera hau ez dago erabat barneratua, eta XVII. mendean *Gastuluzarra* (1675) dokumentatzen den arren, XVIII.ean aldatu gabeko forma jasotzen da berriro ere, egungo aldaera *Kastuluzarra* delarik. Urzainkiko azpieuskalkian eta Uztarrozeako garapena XVI-XVII. mendeetan suertatu zen kasu guztietan: Erronkarin *Gazteluçarra* (1345), baina *Gastu luzar* (1672); Uztarrozen *Gazteluçarra* (1614), baina urte berean *Gaztuluçarra*; Izaban *Gazteluçarra* (1566), baina *Gaztulucarra* (1598). Zuberera kasu honetan ez dator erronkarierarekin bat, asimilatu gabeko formak erabiltzen baitira; Santa-Grazin, esate baterako, *Gaztelügain*.

#### c) i...u | u...u (*iturri* | *uturri*) atzeranzko asimilazioa

Honako hau dugu ekialdeko euskalkiek jasan duten asimilaziorik hedatuena eta maizenik dokumentatzen dena (zubereraz, jakina denez, *i...ü* | *ü...ü*: *üthürri*; Mitxelena 1977: 73-9). Erronkaribarreko herri guztietan gertatzen zen arren, jatorrizko forma ez zen erabat baztertu. Egiaz, Bidankozeko toponimian dokumentatzen den aldaera ez da *uturri*, *iturri* baizik (nire informatzaileak *Iturbelta* lekuizena aipatu zidan; 1892ko kadastra liburuan *Iturrochordoquia* irakurri nuen. Halaber, lekuizen elkartuetan gorde da: *Alcayeturria* [1668]). Aldiz, gainontzeko adibideetan forma asimilatuak nagusi dira, bai toponimian (*Eguluchea* eta *Egulussea* [1892]), bai idazkietan (*unguru*: “Belenen eta bere *unguru* guziuan aur zauden guziuac”, Hualde Mayo 1935: 535; *ulun*: “*Ulungsuan* eroriric zagon cone, ecusi du argui andibatiri”, id.: 533; *utzuli*: “fanzte leinic reconcialatra zore anassarequin eta guero *utzulenzra* presentatra zore oberta”, id.: 535), bai eta ahozko mintzairan ere (Bonaparte printzearen *Catalogo-an*, *uzuli*).

Bi aldaerak sinkronia berean bizi ziren baina forma asimilatua gero eta gehiago erabilia izaten hasi zen. Bidankozeko azpieuskalkiko Burgin, adibidez, 1640an *Yturriçarra* dugu eta 1675ean *Uturriçarra*; Garden, 1590ean *Yturzarreta*, 1711n berriz *Uturzarrea*. Urzainkiko azpieuskalkian, *Ylincha yturria* (1601) eta *Ylincha-uturria* (1802); aitzitik, XVI. mendean *Uturrioce* (1583) baina XX.ean *Iturrioce* (1974). Erronkarin zalantza berberaren adibide ugari ditugu: *Yturgaxtoa* (1617) eta *Uturgastoa* (1836). Alderantziz, *Uturgiloa* (1677) eta *Ytursiloa* (1916); hori dela eta, informatzaile batek, Gardeko *Uturlosko* lekuizenaz ari zelarik, [iturlósko] ebaki zuen.

Izaban zalantza honen adibide garbiak ditugu: 1565ean *Huturrardao* dokumentatzen da baina 1986an Oreste Tapia jaunak, Izabako alkate ohi zenuak, aurkientza berberari *Iturriardao* izena eman zion. Era berean, ibarraren batasuna aldarrikatzen duen 1345eko agirian *Yturra* edota *Yturriburua* izenez ezagutzen zen lekuari 1427an *Yturriburua* zeritzaten. Kontrako ere gerta daiteke, XVII. mendean *Huturroch* deitzen dena XIX. mendean *Iturroch* izan daiteke; mende berean *Uturrizarra* (1828) eta *Iturrizarra* (1892) izan ditzakegu, asimilatu gabeko formak osasuntsu eta bizirk diruelarik.

Hau dela eta, asimilazio hau erronkarieraren erabat barneratua zegoen arren ezin zaharregia izan, Erdi Aroan edo hasiko zatekeen hedatzen, XV-XVI. mendeetarako guztiz

errotua zegoelarik; zenbait kasutan forma zaharra ez zen erabat galdu eta berriarekin batera sinkronia berean hasi zen erabiltzen, bestetan, berriz, aldaera asimilatua izan genuen gailendu eta gorde zen forma bakarra. Uztarrozeoko toponimian, esate baterako, *uturri* dugu kasu guztietan: *Uturruburrusteta* (1654), *Uturrizarra* (1806), *Uturburia* (1806). Aldameneko ibarren egoerari dagokionez, Zuberoan, jakina denez, *üthürri* (Larrañen *Üthürbürü*, *Üthürzeheta*; T. Peillenek a. e.) eta Zaraitzun *iturri* (Ezkarozen, *Iturrocha* [1778]).

#### d) u...i | i...i (*zubi* | *zibi*) atzeranzko asimilazioa

Kontsonante ezpainlesskari batek asimilazio mota hau eragin dezake; Antonia Anaut: “mítilàk... ronkalés, trájean” (Artola 1977: 87). Erronkaribarreko toponimian ia sistematikoki gertatzen da. Izan ere, Bidankozentz *Cibiberria* (1652) eta Burgin *Cibialtea* (1624). Urzainkiko azpieuskalkiko Erronkarin, *Cibiçarra* (1599). Uztarrozeoko azpieuskalkiko Izaban *Onzubieta* (1570) baina *Olcibieta* (1575) eta *Onçibieta* (1615). Herri honetako aurkientza bati *Xoxonzibia* esaten diote. Uztarrozeoko toponimian, berriz, *zubia* hitza asimilatu gabe gorde da: *Carro cubia* (1665), *Carrazubia* eta *Carrazubea* (1806), *Zuberrieta* (1806) eta *Zububerieta* (1828).

#### e) o...e | o...o (*torre* | *torro*) aurreranzko asimilazioa

Aurreranzko asimilazioa ohikoa ez zen arren, honako hau azpieuskalki guztietan garatu bide zen. Bidankozeko azpieuskalkiari dagokionez, Bonaparte printzeak jasotako *Catalogo de palabras de Garde* hiztegian *oneresi* eta *onoresi* hitzak irakur daitezke. Urzainkiko azpieuskalkiko toponimian adibide hauek ditugu, besteak beste: Urzainkin *Torrentea* (1658) eta *Torronea* (1594); Erronkarin *Torreguibelea* (1636) baina *Torrogublea* (1836); *Torrentayrúa* (1643), baina *Torontayrúa* (1634). Era berean, Uztarrozeoko azpieuskalkian *Torrontayrueta* (1649) eta Izaban *Torrobrueta* (1568).

#### f) u...i | u...u (*urritz* | *urruts*) aurreranzko asimilazioa

Toponimiari dagokionez, asimilazio mota hau ez da beti gertatzen. Erronkarin, adibidez, *Urristoya* (1836) eta *Urriztoya* (id.) aldaerak ditugu eta biak asimilatugabeak izaki. Hala eta guztiz ere, badakigu ahozko mintzairan oso barneratua zegoela baina hartan ere zalantzarik bazeen; izan ere, Antonia Anaut andreak Koldo Artolari (1977: 97) hitz egin zionean hitz bereko bi aldaerak erabili zituen esaldi berean, bata asimilatua, bestea asimilatugabea: “oráiko dantzák minò ederrágo bái; orái *utsúsu!* orái *itsúsi!*”. Honela, Erronkaribarreko herri askotan asimilazio mota honetako adibideak aurkitu ditugu. Bidankozeko azpieuskalkiari dagokionez, Bonaparte printzearen *Catalogo-an* guzu irakur daiteke. Uztarrozeoko toponimian, *Mulludoya* (1778) eta *Mullidoya* (1806); Izaban, *Urriscoa* (1567) eta *Urruscueta* (1828), *Burguiberria* (1565) eta *Burgu berria* (1663).

#### g) Disimilazioa

Toponimian, kasu bakan batzuetan betiere, *u...u* taldearen disimilazioa egokitua da ahozko mintzairak aldaezinak zituen hitzetan ere. Honela, noizbait *buru* | *boru*, *buro* bilakaera gauzatu da toponimian, nahiz eta ahozko hizkeraz *buru* hitza egonkorra izan. Bidankozeko azpieuskalkian *Cabale burua* (Bur. 1625) baina *Zalborua* (1892); Garden, *Harburua* (1724)

baina *Arboriederra* (1724). Urzainkiko azpieuskalkian: *Lezabronpea* (1802), hots, \*lezeburu(are)npea. Uztarrozko azpieuskalkian: *Goyenburu* (1588) baina *Goyemburo* (1974). Disimilazio hau dela eta Mitxelenak (1953 § 176) deitura hauek aipatzen ditu: *Aramburo, Bolimburo, Ciburo, Mendiburo, Uruburo*. Halaber, ahozko mintzairan *urrun / urrin* garapena gauzatu da (Artola 1980: 52).

## 1.5) Diptongoak

Beheranzko diptongo ahokariak *au, eu, ai, ei* eta *oi* dira. Atzizki edo beste morfema baten aurrean diptongoaren bokal itxia /i/ denean /y/ bilakatzen da; adibidez, *ai + mug.* → *aya* (*gaya* ‘gaua’), *oi + mug.* → *oya*. Gardeko toponimian, *Idoia, Izidoia, Lixardoia, Burutoia, Burustoia*; oro har, bokalez hasitako edozein osagairen aurrean gauza bera gertatzen da: *gayóna ígar* ‘gau ona igaro’ (Mitxelena 1954: 279). Aipatu ingurunean, /u/ atzealdeko bokal itxia /w/ bilakatzen da: *au + mug.* → *awa* (\**ao* > *au*; *au + -a:* *awa* ‘ahoa’); Burgiko toponimian, *Laquiaua* (1678), *Laquiagua* (1676). Azkuek doinu hau *b* bezala transkribatzen zuen (*aba* ‘ahoa’); izan ere, talde bokaliko honen ebakerari dagokionez zalantza handiak zeuden, zenbait kasutan kontsonante ezpainless bat argi eta garbi entzuten zelarik: *Laquiauo* (Bur. 1643), *Albergataua* (1600), *Albergataba* (1896). Mitxelenaren iritziz /w/ erdikontsonantea *u*-tik *b*-tik baino hurbilago zegooken (Izabako kasuan bederen), morfemen arteko erlazioa benetan estua zenean kontsonante ezpainless entzuten baitzen beti; adibidez, adizkietan Bidankozentzian *zau, zazka* ‘zaio, zaizkio’, baina *zabei, zazkabei* ‘zaie, zaizkie’.

### a) *au* diptongoa

Beherago ikusiko dugunet, *au* diptongoak *ai* bilakatzeko joera nabaria zuen arren, zenbait ingurunetan aldatu gabe gorde zen. Adibidez, /r/, /f/, /s/, /č/ eta, agian, /l/ aurrean (*aur, kaur* ‘hau’; Bid. top., *Austimendia*; Izb. top., *Autxpidea, Sauloa*) edo /r/ gehi kontsonante aurrean (*aurten, aurpegi*) *au* diptongoa genuen sarri, *ai* diptongoa nekez aditzen zelarik (Mitxelena 1977: 93). Toponimian adibide ugari dugu: Bidankozeko azpieuskalkian, *Aurrenatea* (Bid. 1464), *Maurguybarra* (Bur. 1627); Urzainkiko azpieuskalkian *Torrontauria* (Err. 1677); Uztarrozko azpieuskalkian, *Jaureguizabala* (Uzt. 1806), *Ezcaurre* (Izb. 1569), e.a.

Halaber, *au* diptongoa *a+o* baturatik eratorria (ik. infra, A § 1.6 hiatoen atala) edo laburtzapen baten ondorio izan daiteke: adibidez, Izizen *Agozmendia* lekuizena dugu baina Bidankozentzian, *Austimendia*. Mitxelenak (1954: 280) hizkuntzan gertatzen ziren beste adibide hauek jaso zituen: *autz* (zub. *áhotz*, zar. *agotz*); adizkietan *zaude, daude* (hots, *za[g]ode, da[g]ode*), *zau, zitzaun* (hots, *za[i]o, zitza[i]on*), e.a.

### b) *eu* diptongoa

Diptongo hau ez da ugaria, hala eta guztiz ere /r, í, s, l/ aurrean ongi gorde dela dirudi: *euri, neurri, deus, arreuli*. Oro har, hitz-elkarketaren ondorio dugu:

*eu + r:* *Minchate Vrria* (Izb. 1567). Diptongoa murritztu daiteke: *eu > u, Minchaturria* (1612); *eu > u > o, Minchatoria* (1662).

*eu + l:* *Mallilua Jede Ullina* (Bur. 1441). Kasu honetan, halere, lekuizenaren hiru osagaiak bakoitza bereiz hartuta daudenez gero, diptongoa ez ebakitzea gerta zitekeen.

*eo > eu* bilakaera: -*eu* diptongoa bigarren mailakoa izan daiteke, alegia, \**eo* diptongo zaharretik eratorria. Uztarrozen, \**enor* oinarritik eratorritako *eür* eta *eunr* hitzak ditugu (Bidankozentzian *ñor*, Zuberoan *ihüe* ‘inor ere’), *be(h)or* oinarritik *beur*<sup>2</sup>: Uztarrozko toponimian, *Beurlarneta* (1723); Erronkarin *Biorteguia* (1607), *Veorteguia* (1633) eta *Beurteguia* (1704).

*eu > iu*. Badirudi, diptongoaren lehenengo bokalak ixteko joera duela: *Biorteguia* (1607), *Biurteguia* (1898).

*eu > u:* Diptongoa murritztu daiteke, *eo > eu > u:* *Suqeundoia* (1634), baina *Sucundoia* (1850); *ei > eu > u:* *Juque uturria* (1616), baina *Sucutorria* (1850).

### c) *ai* diptongoa

*ai > ei:* Erronkarieraz, *ai* diptongoak *ei* (edota *i*) bilakatzeko joera nabaria du; hona hemen Izabako adibide batzuk, *beino* ‘baino’, *belein* ‘belaun’, *-reino* ‘-raino’, *bezik* ‘baizik’, e.a. Izan ere, Antonia Anaut andreak *bezik* eta *lokeinka* hitzak ibiltzen zituen: “àrdi txíki, txíki; éz rebáñorik bátre, láur edo bòst... *bézik*; laur edo bòst *bézik*” (Artola 1977: 86); “xérria íl eta, *lokeinkák* égin, las longanizas” (id.: 93).

Mitxelenaren iritziz, herri honetan *n* aurrean *ei* ebakitzentzen beti, baina gramatika marka hutsak izan ordez, hitz osoak zirenean eta kontsonante sudurkari edo sabaikari baten aurrean ez zeudenean, diptongoak gorde ziren eta berez *ei* diptongoa zuten hitzakin ez zen nahasketarik gertatzen: *bai* ‘id.’, baina *bei* ‘behi’.

Bidankozeko azpieuskalkian *Zeleguibela* eta *Zeliguibela* (< *zelai gibela*; Bid. 1778). Burgin *Sayssa* (1649), baina *Seysea* (1653). Garden *Gardaseysa* (1677) eta *Seisea* (1660). Urzainkiko azpieuskalkian *Gardasaysa* (Err. 1480), baina *GardaSeyça* (Err. 1627). Uztarrozko azpieuskalkiari dagokionez, Uztarrozen *ai > ei* hersketa suertatzen den arren, *seisa* ez da XIX. eta XX. mendeetako agirietan dokumentatzen. Izaban, *saisa XVI.* mendean dokumentatzen da lehenbiziko aldiz; *seisa*, berriz, XIX. mendera arte ez da dokumentatzen baina arrakasta handiko berrikuntza izan denez gero, hauxe da egungo izabarrek gehien ibiltzen duten aldaera. Beraz, *saisa* jatorrizko forma dugu, *seisa* aurrekoaren bilakaeraren ondorio delarik: *Saysa* (1567), *Saysbarondoia* (1568), *Says-Andia* (1634) baina *Seisederra* (1828), *Seisa* (1916) eta *Seisaderra* (1916).

\**au* diptongo zaharretik eratorritako *ai* diptongoa.

Gorago esan bezala, erronkarieraz eta zubereraz \**au > ai* bilakaera ohikoa dugu: *añai* ‘zekale’ (Zaraitzun, *añagu*), *aigari* ‘afari’ (Amikuzen *auhari*), *aiznar* ‘hausnar’, *gai* ‘gau’, *irain* ‘iraun’, *gaiza* ‘gauza’, e.a. (Mitxelena 1954: 280). Toponimian badira bilakaera honen testigantzak: Bidankozeko azpieuskalkian, *Olagaste* (Bur. 1505), baina *Orgaysti* (1644). Bonaparte printzeak Garden jaso zuen hiztegian *gaiza*. Izaban *Belausaisa* eta *Belaisaisa*:

2.– Uztarrozko *olabeur* hitza (‘basa-oloa’; Lakoizketa, ‘oloza, larre-oloa’) Bidankozeko *olabeor* hitzetik eratorria zen, hauxe \**bihur* oinarritik eratorria zelarik: ‘olo-bihurra, olo-gaiztoa’; goi-nafarreraz, *olabior*. Cf. Mitxelena 1954: 280 eta 1977: 120; cf., halaber, Azkue 1905-6, s.v. ‘e~ur’.

halaber, Antonia Anaut andreak *gaiza* hitza erabiltzen zuen: “oráí, èz egítan súrik eré, *gaizá* koriék” (Artola 1977: 93), “zér nai dèi xakin zér xàtan dégun? *gaiza góxo*” (id.: 94).

Bistan denez, erronkarieraz eta zubereraz \*au diptongo zaharretik ai diptongoa eratorri da. Kasu honetan, bi euskalkiek bide bera jorratu dute, baina beste zenbait kasutan jokaera ezberdina erakutsi dute; adibidez, \*ahu zaharretik erronkarieraz ai diptongoa eratorri da, zubereraz, berriz, ahü (erron. *aintz* ‘ahuntz’, Zub. *ahéüntz*). Ansoko toponimian esandakoa berresten duen adibide bat dugu: *Aunzate* (ibarreko lege berezien berresprena jasotzen duen 1585eko agirian honela idatzita) baina *Ainzate* (1637ko kopian), honek \*au > ai garapena jasan duelarik.

Ildo beretik, erronkarieraz antxumeari *aña*, *añe* edo *añu* esaten zitzaion, Zuberoan *ahüñe* eta Zaraitzun *aguña* (Mitxelena 1954: 280 eta 1977: 88). Aspeko Léès-Athas herrian, Izabako eta Santa-Graziko mugatik oso hurbil baina Biarnoko lurretan, *Añelarra* mendikatearen gailurra dugu; kartografiak *Anie* izena eman dio tontor garrantzitsu honi<sup>3</sup>, eta zuberotarrek *Ahüñemendi* (Lhande 1926-38, s.v.: “nom basque du pic d’Anie”) edo bestela esanda, ‘montagne du chevreau’<sup>4</sup>. Txomin Agirre euskal idazleak eredu honi jarraikiz bere nobela historiko baten izenburuan izen hori erabili zuen Pirinioak izendatzeko; eleberriak *Auñamendiko lorea* izena zuen eta 1897an argitaratua izan zen. Harrezkero, *Auñamendi* izenak bideak egin ditu eta idazleak eman zion adiera Euskal Herri osora hedatu da; alta, erronkariarrek Pirinio mendieei *Bortuak* izena eman ohi diete, eta *Ahüñe* mendiari *Añelarra*, *Añi* edo *Añié*, zeren eta gorago esan bezala Zuberoan *ahüñe* dena, *añe* baita Erronkarin.

#### d) *ei* diptongoa

Eskuarki, diptongo hau *ai* diptongotik edo \*au diptongo zaharretik eratorria izan daiteke. Zubereraz ez bezala, \*j- baten atzean \*au > ai garapena gerta daiteke<sup>5</sup> bai eta hemendik *ei* diptongoa eratorri ere (\*jau > jai > jei): *jaun* > \**jain* > *jéin*, *jín* Izaban eta Uztarrozen, baina *jaun* Zuberoan. Izan ere, Bidankozeko toponimian *Nabargeyna* (1464) eta Uztarrozekoan *BasaJeñburua* (1655). Bestalde, \*eu diptongotik ere eratorria izan daiteke: *ehun* > *ein*, Zaraitzun, *eutzi*, Bidankozen, *eitzi*, *eitzu*, Zuberoan, *ützi*. Era berean, *oi* diptongotik erator daiteke: Izb. Bid. *Jangeikua*, Uzt. *Juangeikua*, orok. *Jangoikoa* (Mitxelena 1954: 281).

#### e) *oi* diptongoa

Diptongo hau -doi atzizkiaren osagarria denez gero lekuizen elkartuen lehenengo osagaiaren bukaeran entzun daiteke. Bidankozeko eta Urzainkiko toponimian *Yraztoyburua* (Bid. 1590; Urz. 1595), Uztarrozekoan *Garardoy guibela* (1630), Izabakoan *Bagadoy carra* (1644) eta *Belaguayceydoyoerreca* (1579). Bigarren osagaiaren bukaeran -doi (-toi) atzizkiak mugatzailea hartzen duenez, diptongoaren apurketa eragin daiteke ([oi] + mug. → [o.ya]): *Adazidoia*, *Armentadoia*, *Belagua Elurridoia*, *Belagua Idoia*, *Burustoia*, *Garardoia*, *Idoia*, *Igordoia*, e.a. Beste morfema batekin, berebat, *Bornas Sagartoieta*, *Borgusagartoieto*, e.a.

3.– Julio Altadill-ek *Geografía General del País Vasco-Navarro* liburuan izen hau aipatzen du (1916).

4.– OEH, s.v. *Ahuñe mendi*. M. Harriet-en eskuizkribuan aipatzen da (XIX. mende bukaerako testu argitaragabea, Henrike Knörren edizioa).

5.– Baino hau ez da beti gertatzen; esaterako, orok. *jauzi*, erron. *xauzi*, *zauzi* (cf. Mitxelena 1977: 94).

Aipatu kasu hauetaz landa, *oi* diptongoa gutxitan dokumentatzen da (Izaba eta Uztarrozeko mugan *Erroyzu* [1678]), gehienetan eratorria (*oi* < *ohe*, *zoin* < *zein*, *moite* < *maite*) edo bokalen garapenak sortua delarik: Gardeko toponimian *Poyeta* (1626), baina *Poytundoa* (1634; sinkopa), *Poytacoalorra* (1649; id.); Erronkarikoan *Yrigoyna* (1648), Uztarrozekoan *Yrigoyne* (1650).

#### f) Diptongo sudurkariak

Erronkarieraz, aipatu diptongo ahokariez gainera, diptongo sudurkari hauek ere baziren: *au*, *eū*, *aī* eta *oī*. Diptongo hauek oso hedatuak zeudela dirudi, baina pixkanaka-pixkanaka desagertuz joan ziren; batzuk eratorriak ziren eta, eskarki, kontsonante sudurkari baten erorketaren ondorioz sortuak: izan ere, [-au] diptongo sudurkaria [-āō] diptongo sudurkaritik eratorria da, eta hau, aldiz, [\*-ano]-tik. Izabako toponimian (\*ardano > ardāō > ardaū): *Huturrardao* (1565) eta *Huturrardaú* (1567).

Toponimian ez dut [eū] diptongoaren adibiderik dokumentatu baina ahozko mintzairan erabilia zela badakigu: Uztarrozen *eūr* eta *eunr* (\*enor) ‘inor’.

Bestalde, [aī] diptongo sudurkariari dagokionez, \*anu taldetik eratorria izan daiteke (*sanu* > *xaī*, *scribanu* > *eskribāī*, *christianu* > *kristiaī*) edo, halaber, \*ane edo \*-ani-tik: bi silaba dituenean, erron. *zaī* < \**zani* (orok. *zain*); bi silaba baino gehiago dituenean, Uzt. *usāī* (< \**usani*) ‘usin egin’. Toponimian dokumentatzen diren adibide berriean kontsonante sudurkari bat erantsi ohi da: Burgin *Ugañay* (1625) eta *Ugañain* (1896), Uztarrozen *Layçapea* (1614) eta *Lainzapea* (1806), Izaban *Hereyce* (1561) eta *Eraince* (1768)<sup>6</sup>. Zenbait kasutan sudurkaritasuna agerian geratzen da, argi eta garbi, tilet baten bidez adierazten baita: *Belañgarate* (Urz. 1600).

Mitxelenak (1954: 281) erakusten duenez, maileguetan \*-one taldetik erorritako [oī] diptongoa dugu: *arrazoī*, *eskóī* (< \*esku-on-e, ‘eskuin’), e.a. Burgiko toponimo hau sail honetakoa dateke: *Abarroin* (1718; *Abarroy*, 1896).

#### g) Diptongoen murrizketak eta monoptongaketa

*au* > *a*: ahozko mintzairan, cf. Uzt. *gargeroz* ‘gaur geroz’. Ibarreko toponimian, *Olagauste* (Bur. 1505) baina *Logaste* (Bur. 1778). Cf. gorago, *Ahüñe* > *Añe*.

*au* > *o* (monoptongaketa): Bidankozeko toponimian *Ausea* (1892) eta *Ose* (1892); Izabakoan *Sauloa* (1828) baina *Lasoloa* (1992).

*au* > *u*: erron. *barur* ‘baraur’, *urtiki* ‘jaurtiki’. Toponimian ez dut murrizketa honen adibiderik aurkitu baina, zenbait kasutan, *au* diptongoa “berrezarri” da *u* behar zuen lekuau: Bidankozeko toponimian *Mururozrora* (1464) baina 1750ean *Maucoroza*. Era berean *Urrutimendia* (1719), *Urtemendia* (1892), *Ustemandía* (1977) baina 1992ko kadastra liburuan *Austimendia*.

6.– Txomin Peillen irakasleak gogoratzen didanez, lekuizen honek diptongo sudurkaria du zubereraz: *Eraíze*.

*eu > e*: erron. *éllu* ‘euli’. Izabako toponimian *Mintxaterrea* (1992; *Mintxate Urria*) eta Uztarrozekoan *Labeturri* (1806; *Labe Uturri*).

*eu > u*: Izabako eta Uztarrozeko hizkeretan *útu*, Bidankozekoan *eitzi*, *eitzu*, Zaraitzun *eutzi* ‘utzi’; erron. *uskara* ‘euskarra’. Gardeko toponimian *Suqeundoia* (1634) eta *Sucundoia* (1724); orobat, *Juque uturia* (1616) eta *Sucutorria* (1850). Izabako toponimian *Minchaturria* (1612; *Mintxate Urria*).

*eu > o* (monoptongaketa): Izabako hizkeran *orkitu*, Uztarrozen *eurki(tu)*, zubereraz *egü(r)uki*, behenafarreraz eta lapurteraz *iguriki* (Mitxelena 1954: 282). Izabako toponimian *Minchatoria* (1662).

*ai > e* (monoptongaketa): Burgiko toponimian *Laerayngorria* (1569), baina *Larrengorria* (1573). Erronkarin *Aranezqajrja* (1480), baina *Arhenezqueria* (1596). Uztarrozeko toponimian *Larrencoa* (1806), *Llarrenzarra* (1806). Izabakoan, *Anay* (1369), *Añelarra* (1972).

*ai > i*: erronkarieraz, sudurkari edo sabaikari baten aurrean diptongoa murritzua ohi da: *bino* ‘baino’, *gitzak*, *gitzazu* ‘gaitzak, gaitzazu’, Izaban *bizien* ‘baitzuen’. Toponimian joera hau nabaritzen da: Burgin *Larringorrea* (1896; cf. Irunberrin, *Larinburua* 1703); Erronkarin *Largaintia* (1836; *Larguintia*, 1974), *Aranezqajrja* (1480; *Aræzqujrja*, id.); Izaban *Anay* (1369; *Animercandia*, 1977), *Belayturri* (1571; *Beliturri*, 1916).

*ei > e*: Burgiko toponimian *Meylua* (1625; *Mellua*, 1629).

*ei > i*: erron. *erin* ‘erein’ (zub. *é(r)eñ*, zar. *eregin*). Burgiko toponimian *seysea* (1653), baina XX. mendean, *Sitxea* (1994). Garden *Ycidoya* (1593; *Yceylucea* 1621); *Gardaseysa* (1677) baina *Gardasisa* (1916). Uztarrozen, XVII. mendean *Vey Videa* (1630) baina XX.ean, *Bibidea* (1994).

#### h) Sabaikaritza

Diptongoaren azken bokala /i/ bada eta txistukari baten aurrean badago, hura ezabatu eta kontsonantearen bustidura gauzatuko da, batura horretatik txetxekari bat sortuko delarik: erron. *axkora* ‘aizkora’, *gaxto* ‘gaizto’. Erronkaribarreko toponimian esandakoaren adibide ugari ditugu: Burgin eta Erronkarin *Axpea* (Bur. 1655, Err. 1992; *(h)aitz pea*), Izaban *Axpilaga* (1568). Bokalak ondoko horzkari ahoskabearren bustidura eragin dezake: Izaban *Vrdaytte* (1634; cf. Santa-Graziren behialako izena, *Urdaitx*).

### 1.6) Hiatoak

Tinbre bereko bokalak elkartzean hiatoak sor daitezke, eskuarki, talde hauek murrizten direlarik: 1) *a + a > aa > a*: Izabako toponimian *Landaandia* eta *Landandia*, biak 1828ko *abolengo liburuan*<sup>7</sup> idatziak. || 2) *e + e > ee > e*: deklinabidean *gazték*, *emaztéki*, e.a. elkartetan Izb. eta Uzt. *astelén*, *lenabentu* ‘azaroa’. || 3) Hala eta guztiz ere, murrizketa ez da

beti gertatzen, bokalek zenbait garapen jasan dezaketelarik: a) *a + a* [morfema galdeztailea] > \**ea > eya*, *ia*: izan ere, *z(a)ra + a?* > \**z(a)rea?* > Bid. *zreia?*, Uzt. *zriá?* b) *e + e > ei*: Antonia Anaut andrearen hitzetan: “éz pròzesione ándirik... géntia éz xoáitan *lein* gisa...” (Artola 1977: 92); izan ere, Izb. eta Bid. *lein*, halere, Uzt. *len* (Mitxelena 1954: 282).

#### Tinbre ezberdineko bokalak

a) *a + bok.* 1) *a + e > ae > e*, Izaban *Bordaerrea* (1569) eta *Borderrea* (1566). Erronkarieraz *améka* ‘hamaika’. || 2) *a + o > ao > o*, Izaban *Landaondoia* (1568) eta *Landondoia* (1600). Dena dela, ik. *qu* diptongoa (A § 1.5a), kasu gehienetan *a + o > au* bilakatzen baita.

b) *e + bok.* 1) *e + a > ia*: hitz barnean hiatoaren hasierako bokalak azenturik ez badu, taldea ixten da; morfema mugan gauza bera agitu ohi da (*séme + a > sémia* bisilabaduna Izaban eta Uztarrozen); egungo toponimoetan halere, mugatzalea edo beste osagai bat elkartzean azentua bere lekutik mugi daiteke aurrealdeko bokal erdikoa azentuatz. Bidankozeko toponimian, *Carcherea* (1643), *Carchiria* (1671). Burgin, *Cabalea* (1566) baina *Zabalia* (1896). Gardeko hizkeran *egunian* (Bonaparte, *Catálogo*). Urzainkin *Ungruña* (1560), XIX. mendeko aldaera, *Yngrunia* (1802). Uztarrozen, *azeari > aziari > axari*: *Aciari veroqui* (1630), *Asariberoqui* (1806). Ildo beretik, egungo zenbait uztarroztarrek *Ugaltia* esaten diote agirietan *Ugaltea* izena duen aurkientzari. Izabako toponimian, *Herreguia-Bortusoro-Hondoa* (1569). Erronkarieraz oso bizirik zegoen bilakaera hau; izan ere, Erronkariko Julian Gayarre tenoreak bere izebari bidali zion gutunean bilakaera hau irakur daiteke: “Ene tia Juana *maitia*” (Irigarai 1974: 41). Izaban, Antonia Anaut andrearen ezpainenatik hitz hauek jaso dira: *erráitia*, *prozesonia*, *úrtian*, *ártian*, *konbersaziónia ségi*, *lanían*, *Xinkon Semiaren...* “zer gáizto génte *gáztia*” (Artola 1977: 90). Hiatoa murritzua daiteke (*e + a > ia > a*): “zér bar zéin ègin bézte? déus erè” (id.). Izabako auzo baten izena *Cearchentea* zen 1566an, baina 1649an, metatesia dela medio, *Izarcenchea* bezala dokumentatzen da; egungo aldaera, *Izargentea* (1916; *Zeartxentea > Ziartxentea > Izarxentea*). || 2) *e + o > -eu* bilakaera dela eta, ik. *eu* diptongoaren atala (A § 1.5b).

c) *i + bok.* Oro har, erronkarieraz talde hau egonkorra dugu (*mía* ‘mihia’, *bíar* ‘bihar’, e.a.). Hala eta guztiz ere Erronkariko toponimian *e + a > ia* garapena gauzatzen den bezala, hiperzuzenketa dela medio edo, kontrako bilakaera ere gerta daiteke (*i + a > -ea*): Bidankozeko azpieuskalkian, *Lezanzodia* (Bid. 1725) baina egungo aldaera, *Lizanzorea* (1916); *Ellacurria* (Bur. 1648), egungo aldaera *La Currea* (1896); *Elurria* (Gar. 1621), baina, egungo aldaera *Elurrea* (1850); *Urrutia* (Gar. 1675) baina *Urrutea* (1850). Urzainkiko azpieuskalkian berebat, *Urrutia* (Urz. 1612; Err. 1615) baina *Urrutea* (Urz. 1802; Err. 1615); *Ollaquecurria* (Err. 1672), baina *Ollakukurrea* (1992). Uztarrozeko azpieuskalkian *Carro cubia* (Uzt. 1665), baina *Carrazubea* (1806). Orobak, Uztarrozen (Garden, Urzainkin eta Erronkarin bezala) *Urrutea* izeneko aurkientza bat dago (1806ko abolengoan dokumentatua). Bestalde, garapena luzeagoa izan daiteke eta, orduan, honelaxe bokalak erdikoa azentuatz. Bestalde, garapena luzeagoa izan daiteke eta, orduan, honelaxe bokalak erdikoa azentuatz.

7.- Alegia, ‘ondasunen liburua’, ‘ondare-liburua’; hau da, lurren jabeen jatorriarekin edo leinuarekin ez du zerikusirik. Liburu honetan jabeen lurak, hauen kokapen zehatza eta mugak aipatzen dira.

*a > ea > ieia.* Hona hemen esandakoa baieztagaten duten zenbait adibide: *Mēdiurrjeya* (Err. 1480; *Mendi Urria*) eta *Opaquieya* (Bur. 1665; *Opaquiya* [<*Opakua*], 1652).

d) *o + bok.* Erronkarieraz atzealdeko bokal erdikoari beste bokal bat eransten zaionean, ondoko bilakaera hau erraztu da: *o + bok. > u + bok.* Jakina, bilakaera hau ez da nahitaez gauzatu behar; badira toponimian eta ahozko mintzairan ere talde honen noizean behingo egonkortasuna erakusten duten adibideak: Urzainkin *Betatuco picoa*, 1581; Bonaparte printzeak Garden jaso zuen Catalogo-an hitz hauek irakur daitezke: *amorioa, esperanzazkoa, eternoa, fedezkoa, karitatezkoa, kontrizacionezkoa*.

Hala eta guztiz ere, bilakaera eskuarki garatzen dela onartu beharra dago, bereziki bi kasu hauetan: 1) *o + a > ua*, Bidankozeko azpieuskalkiko toponimian *Vilascoarena* (Bid. 1892), baina *Vilascuarena* (1892); *Yzabarrua* (Bur. 1916; *Izaberroa*); *Viñaja ondoa* (Gar. 1634), baina *Biñaga ondua* (1627). Urzainkiko azpieuskalkian *Armascoa* (Urz. 1700) eta *Armaxcua* (1637). Uztarrozeko azpieuskalkian *Zaculoa* (Uzt. 1806) baina *Zaculia* (1806; *Zakulua*); *Lexancoa* (Izb. 1569) baina *Lexankua* (1992); hiperzuzenketa ez bada, *Belagoa* (Izb. 1564), halere *Belagua* aldaera zaharragoa izan liteke, 1345eko agiri batean irakur baitaiteke. Halaber, Izabako toponimian beste lekuizen hauek ditugu: *Ardibidepikua, Xabalkua*, e.a. Antonia Anautek hitz hauek erabiltzen zituen: *àntzinékua, gibilekuan, sutonduan*. Koldo Artolari (1977: 96) honelaxe mintzatu zitzzion: “nú égon náz San Sebastián eta *Igelduan* ere bai, eta itsásuan ere bái”; “a jugar al *arríxko, arrízkuara*. Para decir a las tabas, decíamos *arríxkuara*, es el *arríxko*, el que bota”. || 2) *o + e > ue*, Burgin, *Artecoegua* (1625) baina *Artequeguia* (1641); Izaban, *Berroeta* (1345) baina *Berrueta* (1565).

Hegoaldeko azpieuskalkietan bilakaera nagusi honen aldean beste hauek ditugu: 1) *o + a > obo*: Bidankozeko azpieuskalkian (Garden eta Burgin bakarrik): *Puyetaondoa* (Gar. 1677) baina *Poitondoba* (Gar. 1994), *Yzabarroba* (Bur. 1896), *Navarcoua* (Bur. 1896) eta *Txabarkoba* (Bur. 1994). || 2) *o + a > oia*: Garden eta Erronkarin: *Suqe undoa* (Gar. 1634) baina *Suqeundoya* (id.), *Yturgaxtoa* (Err. 1617) baina *Uturgastoya* (Err. 1892), *Barachintoa* (Err. 1702) baina *Barachistoya* (Err. 1892).

e) *u + bok.* Hitz monosilabikoetan egonkorra bazen ere (erron. *sua*, Zub. *süya*), *u + bok.* taldeak Erronkaribarreko azpieuskalki guztietan garapen bortitzak jasan zituen, ondoko lerroetan horiezaz ariko garelarik:

*u + a > \*-uia<sup>8</sup> > -ia*: ahozko mintzairan bilakaera hau guztietan hedatuena izan zen (Mitxelena 1977: 121); ondoko adibidearen bitartez garapen honen diakronia osoaren berri izan dezakegu, urratsez urrats: *u + a*, *Ocapua* (Bur. 1625; *Opakua*), *\*-uya, Opaquia* (1626), *\*-iya, Opaquieya* (1652), *-ia, Opaquia* (1704). Garden *Yriburua* (1560) baina *Huruburuya* (1639); era berean, Izaban *Yeradacua* (1563) baina *Yeradaquia* (1572). Ahozko mintzairan gauza bera gertatzen zen, monosilaboak aldatu gabe gorde ziren arren, haien deklinatzerakoan

8.- Behenafarreraz, *-uia* bukaera ezaguna da. Bernard Dechepare idazlearenengen “Heuscalduen den guion oroc alcha beça buruya”, *Linguae Vasconum Primitiae* (1545).

*jod bat entzun zitekeen behin baino gehiagotan; Antonia Anaut: “Súan, súyan, zánkoak bέlo kor... eta aurrek írian? pues súian bέlo”* (Artola 1977: 93).

*u + a > -ia.* Bidankozeko azpieuskalkian, *Cabale burua* (Bur. 1625) baina *Zabalgurria* (1892); *Yriburua* (Gar. 1560) baina *Iriburia* (1850). Gardeko hizkeraz Printzeak idatzitako Catalogo-an: *bekatiak, zeuriak, zeuriko*. Urzainkiko azpieuskalkiko toponimian *Crucheburua* (Err. 1662) baina *Cruchiburía* (1836), *Aytoydugua* (Urz. 1599) baina *Aituduguia* (1802), *Moztrugua* (Urz. 1577) baina *Moztrugua* (1652). Kasu hauetan *gu + a (mug.) > gia* bilakatzen bada ere, *-a* morfema mugatzailea izan beharrean galdetzailea denean garapena ez da gauzatzen: *badugua?* ‘ba al dugu?’. Salbuespen honetaz gainera, orokorki *u + a > ia* bilakaera gertatzen zen; izan ere, hona Julian Gayarrek bere izebari idatzi ziona: “nic dud anisco deiru orientaco vidagearen pagataco, quemengo *ostatiaren* pagataco”. Uztarrozeko azpieuskalkiko toponimiari dagokionez adibide hauek aipa daitezke: *Landa sargua* (Uzt. 1630) baina *Landasargua* (1656), *Vrruxpura* (Uzt. 1614) baina *Urruspuria* (1806), *Basagein Uturburia* (Uzt. 1806), *Ezcaurre sargua* (Izb. 1616) baina *Ezcaurre-Sargua* (1730), *Arra-sargua* (Izb. 1856). *Belagua* (Izb. 1345) baina Santa-Grazin *Belhaguy* (1914). Izabako hizkeran *múndiara, büría, zériarà, èskia* eta antzeko hitzak ibiltzen ziren (Artola 1977: 79, 83); orobat, Uztarrozeko hizkeran *ordien, börtian, gobérnia, eskíareki, negia*, e.a. (id. 1980: 55, 62, 83).

*u + a > -iua, -ioa.* Uztarrozeko eta Urzainkiko azpieuskalkietan *u + a > ia* bilakaera nagusi zelarik (Izb. eta Uzt. *aingúriak, gúziak, Urz. aingriak*) hegoaldeko azpieuskalkian beste bilakaera batzuk gauzatzen hasi ziren. Honela bada, Bidankozeko toki-izenak aztertzean *u + a* taldea egonkorra dela esan genezake (1464an *Marigaldeburua* lekuizena dugu; 1892an dokumentatu aldaeran aldaketa batzuk gertatu direlarik ere, jatorrizko hiatoa gorde da: *Maidumburua*) baina badakigu herri horretako hizkeran hiato honek aldaketa bortitzak jasan zituela, hitz bukaeran *u + a > \*-uia > -iua* bilakatu zelarik. Mitxelenak dioenez (1954: 282), *-iua* talde hau silaba bakarrekoa zen; beraz, ondoko hitzok honela ebaki beharko ditugu: *aingur(i)uak, hiru silabekin: [ain.gu.riuak]; guz(i)uak, bisilabaduna: [gu.ziuak]*. Garden *-iua* taldearen aldaera bat ibiltzen zuten, *-iod<sup>9</sup>*: Bonaparte printzearen Catalogo-an *guzioak, burioa (< guzuak, burua)* hitzak jasotzen dira. Hori dela eta, orain erraz uler daiteke 1620an dokumentatzen den Gardeko *La Errebiroa* lekuizeren jatorria: *Larreburua > \*Larreburua > \*Larreburiua* (metatesia) *> \*Larreburiua* (metatesia) *> La Errebiroa* (metatesia, artikulu faltsua eta protesia).

*u + a > -uba.* Gorago ikusi dugun bezala, Garden eta Burgin *o + a* hiatoa *-oba* bilaka daiteke zenbait aldaera berritan; hala bada, *u + a* hiatoaren kasuan gauza bera esan dezakegu, Burgin hiatoa ziurtatzeko kontsonante ezpainless bat tarteka baitaiteke: *Moscajrúa* (1579), baina *Moscayruba* (1896).

9.- Bonaparte Printzeak Gardeko hizkeraz idatzitako eskuizkribuen artean bi aipu hauet irakur daitezke: 1) “*Kalaber sinestan diezud berze gainarako Eliza saintiak manetan daiztadan artikulo guzioak, zeren guzioak zuk baitazkazu rebelaturik.* “Asimismo creo en todos los demás artículos que me manda la Santa Madre Iglesia, pues todos los tenéis vos revelados”” eta 2) “*Zoregatik oneresi eta estimatan diezud ñauren prosimo lagun guzioak ñauren burioa bikala.* “Por vos amo y estimo a todos mis prójimos como a mí mismo”” (Azkue 1931: 255).

*u + a > uga.* Ingurune berean ezpainless bat tartekatu ordez, belare bat ezar daiteke. Burgin *Mellua* (1629) baina *Melluga* (1896). Burgiko izen-deituretan ere dokumentatzen da *Jugāegurrja* (Bur. 1562; *Juane Gorria* > *Jugane Gurria*), *Ugalde* (1992; *Hualde*, 1896). Erronkarin *Pojuga* (1898; *Posua*, 1787). Uztarrozen *Zugarrea* (1806; *Zuarrea*, 1676).

*u + e > -ie, -iue-*. Atzealdeko bokal goikoaren eta erdialdeko bokal behokoaren baturaren ondorioz *-ia* edota *-iua* talde bokalikoak sortu diren bezala, *u + e* baturatik *-ie* edota *-iue* taldeak eratorri dira. Burgiko toponimian *Reguiasarguieta* (1642) lekuizena dugu, bigarren osagaian *sargu + eta* dugularik. Bonaparte printzeak Garden jasotako hiztegian *zeurieta* ‘zeruetara’ irakur daiteke. Izabako toponimian 1575ean *Arrimandrueta* dokumentatzen da, baina 1670ean *Arrmandurieta*; orobat, 1602an *Luaraqueta*, baina 1615ean *Luaraqueta* eta 1643an *Luaracueta*. Izabako hizkerari dagokionez, Antonia Anaut andreak *ainguriequi*, *zientako* eta honelako hitzak esaten zituen. Halaber, Uztarrozeko hizkeraz mintzatzen zen Doroteo de Miguel jaunak hitz hauek ibiltzen zituen: *zie'skara* ‘zien uskara’, *ein, zortzein, zortzien*.

## 1.7) Sinkopa (bokal-erortza)

Nafarroako euskalki gehienetan bokal-erortza gertatzen da baina, bereziki, zaraitzueraz eta erronkarieraz<sup>10</sup>. Urkariak dira sinkopa eragiten duten kontsonanteen artean garrantzitsuenak:

a) *Herskari eta dardarkari* baten artean dagoen bokala erraz erortzen da: 1) *BvR > BR*: *Maçeybarburua* (Izb. 1564) baina *Mace ybarbrua* (1571); *Belagoaybiria* (Izb. 1640) baina *Belagoa Ibria* (1828); Uztarrozen *Bru Llarneta* (1676). Deituretan ere sinkopa gauzatzen da: *Errabrassa* (Izb. 1601) eta *herraberassa* (1656). || 2) *DvR > DR*: “la pieca de *Andere Lope*” (Bid. 1464) baina *Andrelopeburua* (1778); *Andreguia* (Gar. 1666). || 3) *TvR > TR*: *Zotrapea* (1676); *Tropo* (1608). Julian Gayarreren gutunean “Eztu eguiten quemen ozic batrere” (Irigarai 1974: 41). || 4) *GvR > GR*: *Agaraco çocoa* (Urz. 1666) eta *Aguerocoçocoa* (Err. 1634) baina *Agraco çoqua* (Urz. 1594) eta *Agracozocoa* (Err. 1723). || 5) *KvR > KR*: *Corostimuga* (Err. 1637) baina *Crostumuga* (1651).

b) *Herskari eta albokari* baten arteko bokalaren sinkopa: 1) *BvL > BL*: *gibel.a > gibel.e.a > giblea*: Bidankozeko azpieuskalkian *Arainguiblea* (Bid. 1892); *Arguibela* (Bid. 1345) baina *Argible* (1992); *Zeleguibela* (Bid. 1778) eta *Celeyguiblea* (1892). Urzainkiko azpieuskalkian *Arguibela* (Err. 1427), *Arguibelete* (1616) eta *Arguible* (1836); *Torreguibeleta* (Err. 1636) eta *Torregiblea* (1836). Uztarrozeko azpieuskalkian *Murguible guibela* (Uzt. 1676). Lekuizen hau guztiz bitxia zaigu bere barnean forma sinkopatua eta sinkopatugabea biltzen baititu: *Murgible Gibela*; edo bestela esanda, *Murugibela Gibela*. Izabako toponimian, *Belaybarrea* (Izb. 1563) eta *Blaybarrea* (1568). || 2) *PvL > PL*: *Doneplayo* (Bur. 1647) || 3) *KvL > KL*: *Belagoan Saculo* (Izb. 1567), Lapatian *Saklo* edota *Sakro* (1986).

c) *Dardarkari eta herskari* artean: 1) *RvB > RB*: *Arbarace* (Gar. 1573). || 2) *RvD > RD*: *Iheradakua > Igardakua*: *Yeradacua* (Izb. 1563) baina *Igardacua* (1828). || 3) *RvT > RT*:

Izaban, *Baratea* (1677), Uztarrozen *Bartea* (1806). || 4) *RvG > RG*: *Arguibela* (Bid. 1345); *Largayntia* (Urz. 1615; *larre gain -ti.a*); *Murguible* (< *muru gibel*; Uzt. 1676); *Arguiburía* (Uzt. 1806; *Arreguiburia*, id.); *Uturgiblea* (Err. 1836). || 5) *RvK > RK*: *Karkalutxea* (Bur. 1992); *Carrica luxea*, 1676).

d) *Dardarkari eta sudurkari* artean: Bidankozeko azpieuskalkiko toponimian *Arringurinea* (Bid. 1778) baina *Arrengurnea* (1892) eta *Arringurnea* (1992); *Yribarne* (Bid. 1644) eta *Yribarrena* (1658); *Iribarnea* (Gar. 1672); *Jirarena* (Gar. 1711) baina *Girarnea* (1724). Urzainkiko azpieuskalkiko toponimian *Yribarrne* (Urz. 1584); *Arrenagueurre* (Err. 1625) eta *Aranagueurre* (1646) baina *Arnagueurre* (1667); *Aranezqajrja* (Err. 1480) eta *Arhenezqueria* (1596) baina *Arnaczria* (1615) eta *Arñezcrica* (1633); *Llarnehederra* (Err. 1677); *Gualderna* (Err. 1974; *Uhalderena*). Uztarrozeko azpieuskalkiko toponimian *Bru Llarneta* (Uzt. 1676); *Ernaçe* (Izb. 1571; *Ernaz*, 1602). Mitxelenak (1954: 284) adibide hauek ematen ditu: zaraitzueraz eta erronkarieraz *burña* (Uztarrozen, halere, *burruña*) baina zubereraz *bürdüña*.

e) Dardarkari eta txistukari artean: *Burguiessa me(n)dia* (Uzt. 1585), *Burguisamendia* (1806), *Bursamendia* (1994). Mitxelenak (1954: 284) jasotako adibideak: Uztarrozen *búrzegi* eta Izaban *bústegi* (baina Zuberoan *bii(r)üzági*).

Erronkarieraz, bistan denez, bokal-erortza ohiko fenomenoa dugu, toponimian dokumentatu ditugun kasuez gainera beste askotan ere gertatzen delarik; honela, txistukari eta herskari artean (*amestan* ‘ametsetan’), adizkietan (*zra* ‘zara’, *gra* ‘gara’, *dra* ‘dira’) eta beste ingurune batzuetan; adibidez, sudurkari eta dardarkari artean: *Sansoren herrotaaltea* (Izb. 1595), *Sanson Errotaltea* (1828) eta *Sansonrotaltea* (id.).

## 2. KONTSONANTISMOA

Mitxelenak (1954: 284) erakusten digunez, ondokoak dira erronkarieraren fonema kontsonantikoak: *p, b, t, d, tt, k, g* (herskariak); *m, n, ñ* (sudurkariak); *f, y (ý), j* (frikariak); *tz, z, ts, s, tx, x* (txistukariak); *l, ll* (albokokoak) eta *r, rr* (dardarkariak). Sail hauek toponimian izan duten eragina aztertuko dugu ondoko paragrafoetan kontsonante bustiei tarte berezi bat eskainiko diegularik.

### 2.1) Herskariak

#### a) Ezpainless

*b/p*: Hitz hasierako herskari ahoskabe eta ahostunen banaketa ez da gainontzeko euskalkietan dugun berbera; aitzitik, kasu askotan gorra aurkitzen dugu ozena espero genukeen leku eta alderantziz. Izan ere, Izaban *baratu* eta *bertz* hitzak ibiltzen zituzten<sup>11</sup>; halaber, Erronkari osoan

10.– Agian harten honetan baino maiztasun gehiagorekin (Mitxelenak 1954: 284).

11.– Antonia Anaut andrearen hitzak (Artola 1977: 83, 84, 91): “nó solo barátu, arrídetarik”, “ta ní solo barátu, ta gero nór erè, bátek erè étxakin uskára”, “y ponían un caldero, bérts bat úrek plaztán, eta ságár bát, flotando”.

*korpiz, tenpra* edota *parkatu* hitz arruntak ziren<sup>12</sup>. Hitz barnean, kontsonante ozena beste batekin elkartzean ahoskabe gisa ebaki zitekeen; Izabako toponimian *zibi + bide* > *zib(i)bide* > *zipide*: *Cipidejabalcoa* (1828); 1592an *Ardibide* baina 1986an *Arpidia*, hots, *Ard(i)bidea*.

b / g: Burgin eta Garden bokalen arteko ezpainlesskari ozena belare bihur daiteke: *Ybarçiloa* (Bur. 1653), baina *Ygarciloa* (1615); *Cabale burua* (Bur. 1625), baina *Zabalgurria* (1892); *Yriburua* (Gar. 1560), baina *Idiguria* (1994).

b / m: Erronkariko toponimian ezpainlesskari herskaria eta ezpainlesskari sudurkaria nahasten dira maiz. Honela, herskariaren ordez sudurkaria izan dezakegu: *Yraztoymurua* (Urz. 1615; *Yraztoyburua*, 1595); *Murculla* (Gar. 1892; *Burculla*, 1620); eta alderantziz, herskari bat gara daiteke sudurkari baten lekuau: *Bugarria* (Bur. 1643; *muga (h)arri.a*); *Vichimaloa* (Err. 1836; *Michimaloa*, 1672); *Bazkunburua* (Izb. 1986; *Maceco murua*, 1591). Txandakatze hau ahozko hizkuntzan ere gertatzen zen; honela, Urzainkiko azpieuskalkiko Erronkariko hizkeran, *kemen*; Julian Gayarre: “*Quemen gaude anisco ongui guciac*” (Irigarai 1974: 41); “eztu eguiten *quemen ozic batrere*” (id.); Uztarrozeko azpieuskalkiko Izabako hizkeran, *keben*; Antonia Anaut: “Ník eztúr entzún kében uskáraz, ez kántarik, et’ez koláko elizáko gáizarik bát(r)ere” (Artola 1977: 80). Herri mugakideen toponimian adibide ugari ditugu: “la costera o cerro llamado por los de Esparza *Arbistoa* y por los de Vidangoz *Armuscoa*” (1778); *Arburua* (Bur. 1627) baina “el Pueyo llamado *Almurua* por los de la Villa de Salbatierra” (1749).

b / f: Bi kontsonante hauen banaketari dagokionez, erronkarieraz eta gainerako euskalkietan ezberdina da: Bonaparte printzeak Garden jasotako *Catálogo-an iburne* irakur dezakegu orokorrean ‘*infernu*’ esaten den arren; halaber, ezpainlesskari gorrazen kasuan, Antonia Anaut andreak *apario* hitza ibiltzen zuen ‘afaria’ adierazteko.

Hitz hasieran atzealdeko bokal bat baldin badago bere aurrean kontsonante ezpainlesskari bat gara daiteke: 1) *O- / Bo-*; *Ormapea* (Izb. 1611) baina *Bormapea* (1569). || 2) *U- / Bu-*; *Urdaspali* (Bur. 1098) baina *Burdaspali* (1085); *Urrutea* (Uzt. 1806) baina *Burrutea* (1994); *Urrustoia* baina *Burstoya* (Gar. 1850).

### b) Horzkariak

Gorago esan bezala, hitz hasierako herskarien banaketa beste euskalkienarekin alderatua ezberdina da batuetan: *tenpra* ‘denbora’, *testatu* ‘dastatu’<sup>13</sup>, e.a. Erronkariko toponimian *torre* hitza dugu, euskalki gehienek *dorre* ibiliko luketen lekuau: *Torreguibelea* (1636).

Bestalde, ahozko mintzairan horzkari ozena alboko bilaka daiteke: Izaban *lantzatu*<sup>14</sup> ‘dantzatu’; Gardeko *Catálogo-an palexitu* (gazt. ‘padecer’).

12.– Cf. Mitxelena 1954: 286; cf., halaber, Bonapartek Garden jasotako *Catalogo-an* lat. *parcere*; orok. *P* > *b* / erron. *P* > *p*: *parkatu*; orobat, bizkaieraz, zubereraz eta zaraitzueraz, *parkatu*, baina gainerako euskalki gehienetan, *barkatu*; okzitaniera zaharrean, berritz, *párcer*, eta katalanera zaharrean, *parcir* (DCECH, s.v. ‘parco’).

13.– Mariano Mendigatxa: “guciuek besugo *testatudigula*” (Irigoien 1957: 130).

4.– Antonia Anaut: “Abér e... güstatu zaióinetz (sic) oraigúneko... fiestá, bai? *lánt(z)atu* ere bái?” (Artola 1977: 82).

Sudurkari baten atzean horzkari ahoskabea ozen daiteke: *Antuna* (Uzt. 1631) *Antuña* (1724), baina *Anduñe* (1638), *Anduña* (1842); cf. halaber, *Anduñaburua* (1778).

Bukatzeko, toponimoen amaieran horzkariak ez dagoen arren badakigu ahozko mintzairan ohikoa zela, eskuarki herskari gorrek toki hori bereganatzen zutelarik. Hala ere adizkietan horzkari ahostuna entzuten zen kasu gehienetan (*dud*, *dutud* ‘dut, ditut’<sup>15</sup>); bestetan, berritz, horzkariaren ebakera laxatuaren ondorioz dardarkari bakuna entzuten zen maiz; izan ere, Koldo Artolak (1977: 80, 88, 94) hauxe entzun zuen Antonia Anauten ezpainlesskari: “ník zér bar *dior* érran?”, “Ník eztúr entzún kében uskáraz”, “*Eztóker* xan ónki”, “Kontátu biar *dúr*, orái zér obro bar *du(r)* kontátu?”. -

### c) Belareak

Erronkaribarreko toponimian, belare ozenak eta gorrazena nahastu ohi dira: *g / k*, Bidankozeko toponimian *Marigaldeburua* (Bid. 1464) baina *Maricalda* (1892), *Vidangozarte* (Bid. 1636) baina *Bidancozarte* (1708); *Equichiquerra* (Bur. 1704; *(h)egi txikerra*); *Herrequiassarrieta* (Bur. 1648; *erregea(ren) sargu eta*). Urzainkiko toponimian *Burkuburua* (Urz. 1993; *Burgi burua*), *Corostimuga* (Err. 1637), Uztarrozeko toponimian *Artaguia* (Uzt. 1614) baina *Arta aquia* (1630), *Gorostia* (Uzt. 1806) baina *Corostia* (1806), *Eguia* (Uzt. 1614) baina *Equia* (1676), *Egui-Ederra* (Uzt. 1842) baina *Equi hederra* (1676), *Luaraguieta* (Izb. 1614) baina *Luaraqueta* (1615), *Lasunguçarra* (Izb. 1600) baina *Lasecunzarra* (1828), *Osinugaltea* (Izb. 1565) baina *Osunucalteia* (1828). Ahozko mintzairan: *Zarakozaradréino*, *Zarakózara*; Antonia Anaut: “Zánkozàrik igártan... Erribrára” (Artola 1977: 86).

Belare ozenari dagokionez, kontsonante ezpainlesskarien txandakatzen da maiz: 1) *g / m*, “*El Muitableta*” (Urz. 1993; *Goyentableta*, 1571). || 2) *g / b*, *Guimbeleta* (Izb. eta Santa-Grazin 1768), *Bimballete* (Bonaparte 1863).

Lekuizen elkartu bateko lehenengo osagaia izan eta bokal aurrean dagoenean *ur* hitzak ahultzeko joera du, bere garapen diakronikoan erabat ezaba daitekeelarik: *ur + bok.* > *ug-*, *u(h)-* (cf. Mitxelena 1953 § 572). Bidankozeko azpieuskalkiko toponimian “*Rio de Ugañay*” (Bur. 1625). Urzainkiko azpieuskalkiko toponimian *Ugarterea* (Urz. 1583; *Huartera*, 1656), *Gualderna* (Err. 1974; *Uhalder(e)na*). Uztarrozeko azpieuskalkian *Hossin hugaltea* (Izb. 1605), *Ugaltia* (Uzt. 1994). Izabako Antonia Anaut andrearen hitz hauetan *h* > *g* bilakaera nabaria da: “ecusi dur *ogaratan* drela nitaz” (Artola 1977: 104); orobat, Uzt. *bigotz* ‘bihotz’.

### Erakusleen hasierako belare gorra

Jakina, ezaugarri hau ezin daiteke toponimian islatu aurkientzen izenetan ez baita erakuslerik kausitzen. Dena dela ezin da puntu garrantzitsu hau aipatu gabe utzi, erronkarieraren ezaugarri nagusienetariko bat delako. Izan ere, erronkarieraz asperenketarik ez dagoen arren, erakusleek eta erakusleetatik eratorritako hitzek *k*- protetiko bat hartu ohi dute

15.– Garden Printzeak jasotako *Catalogo-an*: “*baitutud*; *baizutud*; *daiztad*, *daiztazud*, *daizteod*; *diazkzieud*, *diezud*; *dud*, *dutud*; *zutud*”. Halaber, Julian Gayarrek bere izebari bidalitako gutunean: “Nai badu nic dud anisco deiru Orentaco” (Irigarai 1974: 41).

hitz hasieran. Zaraitzun gauza bera gertatzen da (*kau, kori, kura*), Aezkoan belare ozena aukeratzen dute (*gau, gori, gura*), Zuberoan asperenketa egiten dutelarik (*hau, ho(r)i, hu(r)a*).

Erronkaribar osoan gauzatzen den fenomenoa dugu honako hau. Esaterako, Bidankozeko Mariano Mendigatxa jaunaren gutunetan ondoko hitz hauek irakur ditzakegu; besteak beste: *caur, carta kaur, kura, kark, karek, kek, konek, bulto curak, egun contan, contako, cartarik*<sup>16</sup> (erakusleak) eta *calaz, kain, kainbat, kan, kalako gisan, kemen*, e.a. (erakusleetatik eratorriak). Gardeko *Catalogo-an* hitz hauek ditugu: *kori* (erakuslea) eta *kain, kalaber, bikala* (erakusleetatik eratorriak). Halaber, Urzainkiko azpieuskalkian, Erronkariko Julian Gayarre tenorearen eskutizean belare protetikoa dugu: “Quemen gaude... Nain din sin cona...”. Uztarrozen eta Izaban erakusleen hitz hasierako asperenketaaren belarizazioa gertatzen zen; izan ere, Antonia Anaut andreak hitz hauek ibiltzen zituen: *kori, kuek, korietan* (erakusleak), *keben, kola, kolako* (eratorriak)<sup>17</sup>.

Hala eta guztiz ere, kontsonante protetikoa ez da beti eransten; aitzitik bi kasutan *k*-rik gabeko formak ditugu: 1) *ura* ‘hura’ adjektibo erakuslea ez den izenordain anaforikoaren kasuan, eta 2) *orrek, óri* izenordaina denean (‘berori’): “*orrek kántatu dú, gúk kàntatan déguna gísa*” (Antonia Anaut), eta “*Bere tenpran ssinzen orren azken Otsailaren 17co carta*” (Mariano Mendigatxa), “*Orri cerbuchatu naiz*” (id.).

Aipatu hitzez landa, ez da protesirik suertatzen, *kaxal* ‘azal’ hitza salbuespentzat jo behar delarik (Mitxelena 1954: 287); izan ere, hitz hau erabat isolaturik dago molde bereko beste substantiborik ez baita dokumentatzen; Mariano Mendigatxa: “*Corostiaren ostoa da on aintz eta ardentako; Aragotik sxitendra eta erostadei mendi guciua, kassalaren gentako; kassalaz eguitendei beske*<sup>18</sup> chorien bizirik arrapatako” (Irigoien 1957: 130).

## 2.2 Sudurkariak

Erronkarieraz, bokalen arteko *n*-ren galerak bokal edota diptongo sudurkarien sorrera eragin zezakeen (cf. gorago, Izb. top. *Uturrardão*); baina, sudurkaritasunaren eite aldakorra dela eta, bokal edo diptongo sudurkariak ditugunean gerta daiteke jatorrian bokalen arteko kontsonante sudurkaririk ez izatea, sarritan hiperzuzenketa, analogiaz edota beste arrazoiez sortuak izan daitezkeelarik: Uztarrozen 1614an *Layçapea* baina 1806an *Lainzapea*.

Mitxelenak (1954: 289) sudurkaritzearen ezaugarri nagusiak zehaztean erakutsi zuenez, tinbre bereko bi bokalen artean dagoen sudurkaria galtzen denean, haien batu eta, eskuarki,

16.- Mariano Mendigatxa: “Atzorratsen ene adesskidebati, berze adesskidebatek, oiltzaun besugo pusskabat; eta *cartarik* niri oiltzaitadan aminttobat; *cartarik* partitudabeid familia guciuri amintirrinabana, erraiteko, guciuek besugo testatudigula” (Irigoien 1957: 132).

17.- Antonia Anaut: “Ígar den úrtian, égon zuntién ere *kében* neskafila banak”; “*kében* ez káuzu bátre, bátre uskaldunik; zomait éle, bai, bayà *kóri* eztu aski, ézin konbersaziónia ségi. Ta zük nontik dakizu gú gindela *kuek*”. “Ník eztúr entzún *kében* uskáraz, ez kántarik, et’ez *koláko* elizáko gáizarik bátrere; ene tenpran yá ez, bátre”. “Séntoten dela *kóla*, déus ere, déus ere, nk ez izártan déus ere, sénto deila *kóla...*” (Artola 1977: 79, 80).

18.- Azkue 1905-6, s.v. ‘beska’: “(Sc), *beske* (R), liga para pájaros, *glu pour les oiseaux*”.

bokal sudurkari bat garatu ohi dute: \**anabione*, Errioxan *anabia*, Zuberoan *āhābe*, Uztarrozen *abi* ‘ahabi’, Izabako toponimian *Abizondo*.

Aurrealdeko bokal goikoaren atzetik eta beste bokal baten aurrean sudurkaria gal daiteke (Bid. *amagiarreba*) baina, oro har, hitz hasieran *i*- edota *i*-z bukatuko diptongo bat dugunean kontsonante sudurkaria gorde (edo berrezarri) da, kasu gehienetan palatalizatu eta aurreko bokala irentsi duelarik: Bid. *iñastura*, Uzt. *ñaztura*, *ñardetsi*, Gar. *ñiguren*, *ñore* (Bonapartek jasotako *Catalogo-an*).

Toponimian honako txandakatzeak suertatzen dira: 1) *m / b* (ik. supra, *b / m*, herskarien atalean, A § 2.1a). || 2) *m / n*: *Bormapea* (Izb. 1676) baina *Bornapea* (1828). || 3) *n / l*: *Onçubieta* (Izb. 1599) baina *Olcubieta* (1614); *Holcibieta* (1575) eta *Olcibieta* (1589) baina *Onçibieta* (1615). || 4) *n / r*: *Linueta* (Uzt. 1806) eta *Lirueta* (1806).

Kontsonante aurrean sudurkaria “berrezar” daiteke (Mitxelena 1954: 289): *anr* ‘har’, *anre* ‘area’, *onre* ‘ohore’, *unr* ‘hur’ (dardarkari aurrean); *enzur* ‘hezur’, *ganzta* ‘gazta’ (txistukari aurrean; esaterako, Izabako toponimian 1561ean *Hereyce* toponimoa dugu, 1768an kontsonante sudurkaria berrezarri zaiolarik: *Eraince*). Mitxelenaren iritziz sudurkaritza bakarrik silaba azentudunetan gauzatzen da, horregatik *anre* (*āre* < arena) eta *ganzta* (*gāzta* < \**gaztane*) hitzen kasuan metatesia suertatu denean, azentua eta sudurkaritasuna batera mugitu dira: \**gaztáne* edo \**gaztána* > *gaztā*, eta hemendik, metatesia dela medio, *gāzta*.

## 2.3 Frikariak

Frikari belarea hitz banaka batzuetan entzun zitekeen, esaterako, zenbait mailegu berritan eta *jein, jin, Jangeikua* moduko hitzetan. Bidankozeko toponimian *Nabargeyna* (1464); “*Doronjuane, La solana San Juan*” (1994); Burgin *Done Julio* (1345). Uztarrozeko toponimian lekuizen hauek frikari belarea gorde dute: *BasaJeñburua* (1655; egungo aldaera *Basisáina*) eta *Jabros* (Bid. Uzt. 1624). Gardeko *Catalogo-an* hizketa jasoan erabiltzen ziren hitz hauek aipatzen dira: *Jangoiko, Jesuskristo, juizio, justo, juzgatu, juzgeta*. Hiztegi berean eguneroko aipatzen dira: *Jangoiko, Jesuskristo, juizio, justo, juzgatu, juzgeta*. Hiztegi berean eguneroko aipatzen dira: *jeina, Jein*. Izan ere, honelaxe ahoskatzen zuen bizitzan erabiltzen ziren hauek jasotzen dira: *jeina, Jein*. Izan ere, honelaxe ahoskatzen zuen Izabako Antonia Anaut andreak: “*Jangéikoak nai dien ártio*”, “*Jangéikoari éskerrak*”.

Kasu horietaz landa, gazteleraezko *j*- ez da usu agertzen, erronkarieraz eskuarki hasierako \**j-* > *x*- bilakatu delako (*xa* ‘iada’, *xagi* ‘jaiki’)<sup>19</sup>. Gardeko toponimian *Juca* (1615) baina *Suqe undoa* eta *Suqeundoya* (1634); *Juque uturria* (1616) baina *Sucotorria* (1850), e.a. Zenbait kasutan txetxekariaren ordez etimologikoa ez den kontsonante bat “berrezarri” da hiperzuzenketa dela medio; honela, erronkarieraz *tostatu* aditza dugu *jostatu* aditzaren ordez, balizko \**ddostatu* forma batetik eratorria zela ulertu baita: Urzainkiko toponimian *Tostalecueta* (1632).

19.- Mitxelenak (1954: 285) zaraitzueraz eta aezkeraz gauza bera gertatzen dela dio (Zaraitzun *xaiki*, Aezkoan *xeiki*); zubereraz, berriz, ez da aldaketarik gertatzen (*jaiki, jeiki*). Bestalde, singularreko bigarren pertsonari dagozkion izenordain eta adizkietan y dugu eta ez *x* (eratorria baita): *yí yaz, yintzen*, e.a. Antonia Anaut andreak hitz hauek ibiltzen zituen: *yín* ‘etorri’ (orobat, *xin*) eta *yik* ‘hik’.

Beraz, hitz hasierako \*j- zaharra ez da batere egonkorra, zenbait euskalkitan bokalizatu egiten delarik; cf. Mitxelena 1977: 168 (“j en a.-nav. guip. ia, iya ‘casi’”). Erronkarieraz txetxekari bilakatu da: Erronkarin *sin, chaten*<sup>20</sup>; Izaban, *xoaitan, arkanxelieki, Xinkon Semia, xitan, xaseririk, xatan, xin, xoanen, e.a.*<sup>21</sup>

Hitz barnean usu gertatzen da, *jod* erdikontsonantea lexema bereko bokalen artean dagoenean txetxekari bihur baitaiteke (-ViV- edo -VihV- → -VxV-): erron. *anaxe* ‘anaia’<sup>22</sup>; Mariano Mendigatxa: “Yzeya eta lerra aztandra *ossezkietan*; bagoa sierretan; arecha ikialtetan; eta artakarroa peña errieta. Baguak du bicia luciago; eztud beinenere (sic<sup>23</sup>) entzun arecha eta artakarroa *essartudrela* bere caboz. Otakak obroena du ogei urteren bicia, baya *essartuz* duatzana gisa faitendra sortuz” (Irigoien 1957: 130-1).

Bidankozeko azpieuskalkiko toponimian *Osanea* (Gar. 1613; *oihana*), *Ojan ondoa*<sup>24</sup> (Gar. 1621; *oihan ondoa*), *Ixaraberrieta* (<*eihera berri -eta*; Bur. 1658), *Laojana* (<*La [erd. art.] oihana*; 1896). Urzainkiko azpieuskalkiko toponimian *Hosanartegua* (Urz. 1594), *YJeraberrieta* (Err. 1616; *Yxeraberrieta*, 1662), *Ogesquiederra* (<*oihezki ederra*; Err. 1634); Uztarrozko azpieuskalkian: *Egerarria* (<*eihera (h)erria*; Uzt. 1614) eta *AJerraria* (1654), *Vrrutico ojana* (Izb. 1600), *Usanea* (1992). e.a.

Nolanahi ere den, bilakaera hau ez da beti gauzatu: *Oyanartea* (Bid. Igari, 1778), *Oyanartea* (id. 1842), *Oyezquia* (Urz. 1594). *Oianarte* Bidankozeko deitura zen: “la Macanera de *Oyanarte*” (Bid. 1464).

Bokalez hasitako morfema baten aurrean ez da txetxekari bihurtzen; aitzitik, frikari sabaikaria dugu (-Vi# + V- → -VjV-): *aiezka, deiez, gaia, oia, e.a.*<sup>25</sup>. Izan ere, aldaera baten kasuan izan ezik (*ASaizpea*, Urz. 1620), gainerako guztietan *Aiazpea* da dokumentatzen den forma bakarra (*Ayazpea*, Urz. 1571); alegia, -azpea osagarri autonomotzat hartzen da eta, ondorioz, ingurune horretan ezin txetxekaririk ezar.

Bidankozeko azpieuskalkian, Zaraitzun bezala, \*jw- > f bilakatzen zen (*fan* ‘joan’) baina badirudi Uztarrozkoan hori ez zela gertatzen: *xuán* ‘joan’ (Mitxelena 1954: 286). Kasu honetaz gainera, f mailegu berrieta aurkitzen dugu, bai eta zenbait hitz zaharretan ere: *fungo* ‘onddo’; Urzainkiko toponimian *Fongociloa* (1802).

## 2.4) Txistukariak

Erronkarierak, gainerako euskalkiek bezala, sei kontsonante txistukari zituen bi atal nagusi hauetan banatuak: alde batetik, hiru txistukari frikari (s, z eta x) eta bestetik, hiru txistukari afrikatu (ts, tz eta tx). Bistan denez, erronkarieraz, zubereraz ez bezala, txistukari ozenik ez dago.

### a) Txistukari frikariak

*z / s*: Ondoko adibideek erakusten dutenez, erronkarieraz bizkar-albeolarea eta apiko-albeolarea nahasten ziren maiz; Antonia Anaut: “Ba... biár dzu bái... békterik ere déitzeik”, “eta bí alába, Madríden; eta... békze bát Bilbáuen” (Artola 1977: 79, 81). Gardeko *Catalogo-an meresimentu* eta *gaisto* hitzak ditugu, *merezimentu* eta *gaizto* hitzen ordez. Bestalde, erdaraz erabiltzen den izena *Isaba* delarik, toponimian *Izaba* da ezagutzen den aldaera bakarra: *Jcaua aguerre* (Urz. 1601) eta *Yçauaycalçu* (Uzt. 1614). Halaber, Erronkaribarreko ibaiari *Ezka* eta *Eска* izenak ematen zaizkio: *Ezca* (1345) eta *Esca* (1427); *Ezçače* (Bid. 1634; *Escace*, 1778); *Ezcacarrica* (Izb. 1583; *Escacarrica*, 1828); *Ezcaursaysa* (Izb. 1568; *Escarsaysa*, 1591); *Ezcayturria* (Izb. 1568; *Eskiturrea*, 1990). Halere, *Ezkaurre* dugu beti, aldatu gabe, egonkorra eta inoiz ere ez *\*Eskaurre*.

Bidankozeko azpieuskalkiko toponimian *Zazpi* (Gar. 1427) eta *Saspi* (1666); *Aranseta* (Bur. 1505) eta *Aranceta* (1892); *Goldaraz* (Bid. 1623) eta *Goldarase* (1892). Urzainkiko azpieuskalkiko toponimian *ARespata* (Err. 1670) eta *Arrezpata* (1836); *Mostrua* (Err. 1629) eta *Mosturua* (1662) baina *Mozturua* (1646). Uztarrozko azpieuskalkiko toponimian *Sempori* (Izb. 1856) baina *Zanpori* (1972) eta *Zenphori* (1993); *Siloa* (Izb. 1828; cf. *zuloa* > *ziloa*); *Soriza* (Izb. 1664) baina *Zoriça* (ans. 1645) eta *Zuriza* (ans. 1668).

*z / x*: Bizkar-albeolarea, bustidura adierazgarria zela medio, sabaikari bilaka zitekeen (ik. infra, bustiduraren atala, A § 2.7c): a) *zabal / xabal*: *Zipidejabalcoa* (Izb. 1828) eta *Zipidezabalcoa* (1828); *Sabalcua* (1916), *Xabalkua* (1992); b) *za(ha)r / xar*: *Bordaxoarra* (Err. 1345), *Bordajarra* (1607). Antonia Anaut andrearen ezpainenetan: “Xar, xar!! zónbat urte...” (Artola 1977: 79); c) *ziloa / xiloa*: *Cumbuxiloa* (Izb. 1567), *Cumbujiloa* eta *Cumbuciloa* (1828), *Congosiloa* (1916); *Arjiloa* (Gar. 1620); *Uturgiloa* (Err. 1677); *Argiloa* (Err. 1836); *San Juangiloa* (Err. 1836).

*x*: Txetxekari frikaria Erronkaribar osoan hedatua zegoen (cf. supra, \*j-: A § 2.3): Bidankozeko azpieuskalkian *Abesarena* eta *Abejanera* (Bur. 1653); *Axanda* (Bur. 1670) eta *Ajanda* (1655). Urzainkiko azpieuskalkiko toponimian *Ebangelio* (Urz. 1594) eta *Bansilio* (1993). Uztarrozko azpieuskalkian *La Xotala* (Uzt. 1994); *Abajueta* (Izb. Urz. 1616). Halaber, txikigarri bezala erabilia: *Bordaxoarra* (Err. 1345).

- 20.– Julian Gayarre: “Eugenia *sin* da arro ongui”, “*chaten* dugu quemen anisco ongui” (Irigarai 1974: 41).
- 21.– Antonia Anaut: “Báietz, Frántzian ègon nindézun, gázte gindénian, *xoáitan* gindézun, espartiñára, trabàjatra négun”, “Goatzen aingurieki / arkanxelieki / gaur kantatzera / Gore Erregiaren / *Xinkon Semiaaren / adoratzera*”, “Ikusi dûr ánitx *xoáitan*, nì mino gaztiágó”, “Emázte baték érran zión gízon batí: *xítan* dén[ak] kalzéti[n] solo, espartiñárik ez, oskirik ez, déuspabez. Eta érran zion emázte baték: Áurra, “Kuartillo”, nón tzuk espartiñák? beste léku bátan!”, “eta láur úrte ígari... láur ázken úrtiak, *xáseririk*, ézin zínkrutik égon...”, “Eta abér nólá bízi nindén ni órtzik bagè, ala e(z)nién *xítan*... Eta èz túr *xítan*”, “eta órai *xin*, ámaren ékustra, ekústan bitéi *xár* nizàla eta *xoánen* nàzela fíte...!” (Artola 1977: 80, 81, 82, 83, 85).
- 22.– Antonia Anaut: “senárraren ánáxe bat... bi anáxe Amerikétre (sic) xuan ta bíak il, biák, àski fíte” (Artola 1977: 82, 83); Doroteo de Miguel: “badu *anaxe* bat” (Artola 1980: 57). Hualde Mayo (1935: 533): “Erabiltancelaric egunbatez Jesus Galileaco ichasuaren erribran, ecusicion bi *anasse*, Simon, guero deitucena Pedro eta Andrés bere *anassa*”. Zaraitzun bokalen arteko *jod* honek erortzeko joera du (cf. Mitxelena 1954: 286).
- 23.– Hala ere, Estornes Lasak (1984: 74) “bein ere” transkribatzen du.
- 24.– Alde honetako toponimian ohikoa da /ʒ/ fonema j grafiaren bidez adieraztea.
- 25.– Cf. Mitxelena 1954: 286. Jakina, bigarren osagaiaren hasieran busti den kontsonante bat baldin badago, orduan, inongo oztoporik gabe, txetxekaria bokal aurrean gerta daiteke (Azkue 1931, s.v. ‘rebañito’): “rebaño de vacas *bexalde*”, hots, ‘behitalde’.

## b) Txistukari afrikatuak

*tz-, ts-:* Hitz hasieran gutxitan aurkitzen ditugu, balio adierazgarria dutelarik (Mitxelena 1954: 288): Izb. Uzt. *tzuntzur* ‘zintzur’, Uzt. *tzintz* (zub. *zintz*) ‘muki’, Uzt. *tsats* ‘zikinkeria’ (Bid. *sats* ‘simaur’).

Egungo informatzaileek *-tze* (edo *-tza*) atzizkia behar duten lekuizenak kontsonante frikariaz ebakitzen dituzten arren, haien arbasoek kontsonante afrikatuaz ahoskatu zutela argi dago, ahozko mintzairan ebakera mota hau oso bizirik baitzegoen duela gutxi arte; Azkue 1931, s.v. ‘árbol’: “Hay árboles grandes en tal bosque: pinos, abetos, escarrones (tilos), avellanos, nogales, bojes; *atze andiak daude kalako oixanean: lerratzeak, izaiatzeak, axtigarratzeak, unratzeak, etxagurratzeak, ezpelatzeak*”. Beraz, ondoko kasuetan bederen, idazkera normalizatu bat proposatu beharko bagenu, *tz* grafiaren alde egingo genuke: Bidankozeko toponimian, *Baratzeta*. Urzainkin *Atirolatze*, *Babatzea*, *Balmatzea*, *Iturriotze*, *Katxolatze*, *Larratza*, *Larratzordoki*, *Magardolatze*. Uztarrozeko toponimian *Baratzea*, Izaban *Agintzolatze*, *Asolatze*, *Olatzeberdea*, *Larratza*, e.a. Azkue 1931, s.v. ‘barbecho’: “*larratz* (R-utz)”.

Hitz bukaerako txistukari gehienak afrikatu gisa ebakitzen ziren arren zenbait kasutan frikaria entzun zitekeen: *korpiz* ‘gorputz’, *opus* (< lat. *id.*) ‘ahalegin’, e.a. Toponimian frikariari *e* paragogiko bat erantsi ohi zaio: Bidankozeko azpieuskalkiko toponimian, Bid. *Goldarase*, Bur. *Belkoxe*, Gar. *Arbaraze eta Pantxarase*; cf. *Bidankoze* (top. nag.). Urzainkiko azpieuskalkiko toponimian, Err. *Uturroze*. Uztarrozeko azpieuskalkiko toponimian, Uzt. *Arberase*, Izb. *Eraize*, *Sanze eta Maze*; cf. *Uztarroze* (top. nag.).

## Afrikatu apiko-albeolarea: *ts /č/*

XVI-XVII. mendeetako dokumentazioan maiz *ss* digrafoa irakurtzen dugu, zenbait kasutan *s* edo *x* adierazten duela argi dago, baina beste askotan *ts*-ren ordez dagoela nabaritzen da: Bidankozeko azpieuskalkiko toponimian *Essarena* (Bid. 1586; *Echerena*, 1701), *Sayssa* (Bur. 1649; *saihetsa*), *Donossoa* (Bur. 1654; *Don Ochoa*, 1345). Urzainkiko azpieuskalkiko toponimian *YosSea* (Urz. 1644), *Idiossea* (Err. 1655; *Hiosea*, 1607; *Yochea*, 1667). Uztarrozeko azpieuskalkiko toponimian *Burguiessamendia* (Uzt. 1543), *Yriuarne sajssa* (Uzt. 1645), *ESSabacocga* (Izb. 1584).

Sudurkari atzean *ts* izan dezakegu (digrafoek eta letra larriek hala adierazten dutela dirudi): *Sansso andia* (Izb. 1480), *SanSo andia* (Err. 1480). Orobak, dardarkari atzean *CarricaerSia* (Gar. 1634) eta *LapizerSia* (Gar. 1621; *Lapicheria*, 1850). Dena den, ahozko mintzairan frikariaz ebakitzen zen (erron. *ersi*; zub. *ng, nb, l. (h)erts*), hitz eratorriean afrikatua entzuten ahal zelarik (erron. *ertsigo* ‘estura’)<sup>26</sup>.

Bokalen arteko apikoalbeolarea (grafia anitz erabili da fonema hau islatzeko): *GardalaSa* (Gar. 1646; *lats*), *Osagorria* (Uzt. 1678; *otsa*, *otsa-*), *Ochogorri-chipia* (Uzt. 1859), *Ochogorrico-gaina* (Uzt. 1859), *Osobieta* (Bid. 1892).

Afrikatuaren aurrean jatorrizkoa ez den dardarkari bat gara daiteke: *Ose* (Bid. 1892), *Ortse* (Bid. 1992). Halaber, ahozko mintzairan gauza bera gerta daiteke eta, ondorioz, *etse* hitz ezagunaz gainera (“*Etse onki dagoniara krutxea bortara*”, Azkue 1931: 269), *ertse* aldaera ere entzun zitekeen; izan ere, Uztarrozeko Doroteo de Miguel jaunaren hitzetan: “badú bëste értse bat Espandóyan” (Artola 1980: 69). Toponimian afrikatu bizkar-albeolareak antzeko joera erakusten du: *Beçula* (Uzt. 1496), baina *Bertxula* (Uzt. 1992). Cf. analogiaz, erron. *mertxede* (< lat. *mercēdem*), orok. *mesede*.

## Afrikatu sabaikaria: *tx /č/*

Hitz hasieran agertzen denean balio adierazgarria izan ohi du (Mitxelena 1953 § 299); adibidez, *Hernando* edo *Herrando* izen bereziaren txikigarria *Txerran* (edo *Txarran*) izaki eta hitz hasieran afrikatu txetxekaria du: *Txarrantxulo* (Izb. 1992), *Txarranko* (Izb. 1993); *zabal* > *txabal*: *Txabalkua* (Izb. 1992).

Hitz barnean, lat. *cruce(m)* oinarriaren bilakaerak *gurutze* eman beharrean *krutxe* eman du, anaptisirik gabe (zubereraz *küriütxe*) eta kontsonante afrikatu txetxekaria, hots, sabaikaria duelarik. Bidankozeko azpieuskalkiko toponimian *Cruchegaratea* (Bid. 1641), *Cruchussurria* (Bid. 1892), *Crucheburua* (Bur. 1658), *Cruchegorria* (Bur. 1750), *Molinocrucha* (Gar. 1850). Urzainkiko azpieuskalkiko toponimian *Cruchelaga* (Urz. 1802), *Cruchetoa* (Urz. 1700); *Cruchelaga* (Err. 1590), *Cruchilaga* (Err. 1593). Uztarrozeko azpieuskalkiko toponimian *Crucgeta* (Uzt. 1614), *Cruchialtea* (Uzt. 1712), *Cruchaltea* (Uzt. 1806); *Crucheaga* (Izb. 1564), *Cruchaga* (Izb. 1605), *Cruchexarra* (Izb. 1675), *Cruchepa* (Izb. 1828). Abolengo Liburuan *Krutexaga* lekuizenaren aldaera anaptiktiko bat dokumentatzen da: *Curuchaga* (1828); orobat, Santa-Grazin *Khirütxaga* (T. Peillenek a. e.).

Halaber, lat. *fauce(m)* > erron. *botxe* dugu: Bidankozeko toponimian *Cutusbochea* (1464) eta *Zurrunbutxe* (1992), Burgin *Botxaska* (1990) eta Erronkariko mugetan *Ajorenbochea* (Err. Gar. 1590), *Bochela* (Err. 1345; Bur. 1439) eta *La Bochuela* (Err. 1807; Bur. 1896).

Hitz bukaeran deituren amaieretan erabiltzen da *Artutx*, *Bertitx*, *Bilitx*, *Bortetx*, *Bortitx*, *Galetx*, *Martitx*, *Nekotx*, *Petrotx*, *Salbotx*, e.a.; izenari *tx* taldea eransten zaio, *etxe* oinarriaren apokopea delarik: *Mur do quoechea* (Izb. 1577) baina *Mururducoch* (Izb. 1583). Dena den, toponimian hitz bukaerako txistukariak arbuiatzzen dira, gehienetan paragogea gauzatzen delarik (cf. *gorago*, *Goldaraz*, *Goldarase*): *Murdupoche* (Izb. 1662); halaber, *Manzo garceh* (Gar. 1675), *Manzogarzech* (1724) baina *Marzaceche* (1850) eta *Manceche* (1916).

Zuberoan *ch* grafiaren ordez *ix* grafia biarnesa ibili ohi dute: *Larrañen Apheceix*, *Barneix*, *Basterreix*, *Goyheneix* (1832) eta Santa-Grazin *Bertereix*, *Goyheneix* (1914). Zenbait kasutan *ig* grafia biarnesa aukeratua izan da: Santa-Grazin *Çabalcoig* (1914). Huescako Anso herrian *chs* grafia: *Zabalcochs* (1977).

## 2.5 Albokoak

Hitz barruan urkariak nahas daitezke (erronkarierak dardarkaria izan dezake besteek albokoa izanen luketen lekuan: *burar* ‘bular’, *zirar* ‘zilar’); hori dela eta, *Costobli* (Bur. 1663) izena duen aurkientzari egungo informatzaileek *Kostobre* eta *Kostobri* deitzen diote; era berean,

26.– Cf. Mitxelena 1954: 293 (bid. *ersi*, zub. *hérsi* ‘panser, mettre un bandage’) eta Azkue 1905-6, s.v. ‘ersi’: “(R), estrecho: *éroit, reserré*. ¡BIDE ERSI DA KAU! ¡qué estrecho es este camino! *que ce chemin est étroit!*”

txandakatze honen adibide ugari dugu; esaterako, *Gamuluçandia* (Urz. 1573) eta *Gambruzandia* (1802), *Echabalcoa* (Bur. 1896) eta *Chabarcos* (id.), hauek sinkronia berean bat eginik.

Orobat, txandakatza kontsonante sudurkariekin gerta daiteke: *Mulludoya* (Uzt. 1778), *Mullidoya* (1806) eta *Mulidoya* (1859) baina egungo aldaera *Munidoia* (1994).

Gai honi gagozkiolarik, ikus beherago kontsonante multzoen atala (*A* § 2.8) eta palatalizatze prozesuei buruzko atalean alboko sabaikariaz esaten dena (*A* § 2.7e).

## 2.6 Dardarkariak

Dardarkaria hitz hasieran gutxitan agertzen den arren, maileguetan gorde da (Mitxelena 1954: 288); Bid. *reino* ‘erreinu’, *reina* ‘erregina’; Uzt. *repattan* ‘artzaintxo’, *rape* ‘errape’, e.a. Bainaz ez da mailegu guztiekin agitzen; aitzitik, salbuespen ugari daude bai mailegu berrieta, bai eta zaharretan ere: *errede* ‘sare’, *erreposu* ‘atsedenaldi’, *erresponditu* ‘erantzun’, e.a.

Toponimian, berriz, dardarkaria ohikoa da hasierako leku horretan, aurreko bokalaren aferesia maiz gauzatzen delako: Izaban *Erreguiabortosoroa* (1567) baina *Requiamortosoroa* (1828); era berean, *Raco* (1581; *Arrako*); *Retola* (1828; *Erretola*); *Roizu* (1986; *Erroizu*). Bidankozentz *Rotaburua* (1892; *Errotaburua*), e.a. Bistan denez, aldaera hauek eratorriak dira eta errromantzeak eragindakoak; izan ere, euskarak hitz hasierako dardarkaria arbuiatzen du, lekune horretan *e* edo *a* bokalak ezartzen dituelarik: *Erretola* (Izb. 1600) eta *Arretola* (Izb. 1637).

Hitz barneko egoerari dagokionez, ondoko txandaketak aipatu behar dira:

*r/d*: Uzt. *idi*, *idiara* (Artola 1980: 75), Doroteo de Miguel: “lurra (sic) eltudu *idiara*, ez anix” (id. 79); Bidankozeko azpieuskalkiko toponimian *Yriburua* (Gar. 1560) baina *Idiguria* (1994); *Yriarte* (Gar. 1625) baina *Idiarte* (1994). Urzainkiko azpieuskalkiko toponimian *Arñezqurja* (Err. 1480) baina *Arnizquidia*, *Arnizquidea* eta *Arnosquidea* (1898); *Ydiondoa* (Err. 1916). Uztarrozeko azpieuskalkiko toponimian *Iriola* (Uzt. 1806), *Idiola* (1977) eta *Ad Acidoya* (Izb. 1345); egungo aldaera *Arazidoia* (1986). Kontrakoa ere gerta daiteke, hots, *d* → *r*: *eran* ‘edan’, *iroski* ‘edoski’, *eroki* ‘eduki’, Uzt. *areskide* (Mitxelena 1954: 288 eta Artola 1980: 72); Bidankozeko toponimian *Lezanodia* (1725) baina *Lizanzoreoa* (1916).

*r/l*: Bidankozeko azpieuskalkiko toponimian *Carcherea* (Bid. 1643) baina *Carrchelea* (1668); *Arandari* (Bur. 1345) baina *Alandari* (1896); *Arburua* (Bur. 1627) baina *Almurua* (1749); *Ybar belza* (Bur. 1647) baina *Ybalbelza* (1896); *Argaraieta* (Gar. 1986) baina *Algaralleta* (1975); *Baraceçarreta* (Gar. 1647) baina *Balaçeçarreta* (1562). Urzainkiko azpieuskalkiko toponimian *Arkadoia* (Urz. 1985) baina *Alkadoya* (1974); *Moztrugua* (Urz. 1577) baina *Muztulgua* (1615); *Arrarte* (Err. 1616) baina *Arraltea* (1730); *Yjeraberrieta* (Err. 1616) baina *Ygelaberrieta* (1836). Uztarrozeko azpieuskalkiko toponimian *Garardoia* (Izb. 1564) baina *Galardoia* (1612); *Galatea* (Izb. 1612; *Garatea*); *Saclo* (Izb. 1974; *Sakro*); *Solondoia* (Izb. 1994; *Sorondoia*).

Hitz bukaeran *r...r* (*iror* ‘hiru’) eta *r...rr* (*burar* ‘bular’) segidak onartzen ziren; gainerako euskalkietan lehenengoa arrunta den arren (*erori*, *baraour*) bigarrena arbuiatzen da (*zilar*, *bular*). Adizkiei dagokienez, lehenengo pertsonari dagokion -*t* desinentzia behin baino gehiagotan -*r* bezala ahoskatzen zen; Antonia Anaut: “*èztakir* zer errán” (Artola 1977: 82), “ez *bítoker* egín lán ándirik” (id.), “*Eztóker* xan onki” (id.: 88), “*Nik badier* alaba bát” (id.; ik. gorago, herskarien atala: A § 2.1.b). Deklinabidean, ablatiboaren atzizkiak -*tik* edo -*rik* izan daitezke; Antonia Anaut: “óts *karrikátk*, vamos de la calle” (Artola 1977: 95), baina “*Zánkozàrik* igártan... Erribrára” (id.: 86). Ildo beretik, Erronkaribarreko toponimian antzeko gauza bat gertatzen da, hitz bukaerako txistukaria *r* bilaka baitaiteke (*lats* > *lar*): *GardeLase* (Gar. 1590), *Gardelasa* eta *GardalaSa* (1646), *Gardelacha* (1677), baina *Gardalar* (1850). Ondoko adibidean, berriz, *lar*, *lats* baino lehenago dokumentatu da: *EchilaJe* (Bur. 1645), *Heche Laje* (1653), *Hechelaxe* (1667) baina *Echallar* (1626).

Esandakoaz gainera, hitz bukaeran dardarkari bakuna egon zitekeen (gainontzeko euskalkietan hitz bukaeran /r/ eta /l/-ren arteko oposaketa neutraldu eta bakarrik dardarkari anizkuna ahoskatzen da)<sup>27</sup>: *kaur* ‘hau’, *ur*, *laur*, e.a. Toponimian dokumentatu ditugun adibide guztiak dardarkari anizkuna dute: *Aizagar* (Bid. 1892; *Aizagerre*) eta *Bidezar* (Bid. 1992; *Bideza(h)rra*).

## 2.7 Sabaikariak

Oro har, kontsonante bustiak bustigabeen menpe zeuden, balio adierazgarria zutelarik:

a) Horzkarien sailean, sabaikaritze hauek gauzatzen ziren: 1) (*i*) *d* > *dd*: Erronkarin, top. *Idiosea*, *Ddiosea* eta *Yiosea*. Horzkari sabaikaria txetxekari bihurtzen ahal zen (*d* > *dd* > *x*): *exerrago*. Halaber, alderantzizko kasuak gertatzen ziren, hots, sabaikari bat espero genukeen lekuak horzkari bat “berrezar” zitekeen; izan ere, ondoko kasuan erakusten den bezala, erronkariarrek *jostatu* aditzaren ordez *tostatu* aditza ibiltzen zuten; Antonia Anaut: “Óts arrixkuarà, tóstarà, arríkuara. *Tóstatzéa*... *tòstatzéa*, a jugar al arríko, arríkuara” (Artola 1977: 96). || 2) *nd* > *ndd*: Sudurkari atzean horzkaria sabaikari bihur zitekeen: *Garden*, antrop. *Arronddoa*, *Ddenddari*. Izaban, antrop. *Arronddo*, *Kondde*. Ingurune honetan *ntt* taldea ere gara daiteke: Izaban, antrop. *Anttomarro* (alegia, *Antso Marro*, *Santxo Marro*). || 3) *t* > *tt*: Bidankozentz, top. *Mattiberroa*. Izaban, ahozko hizkuntzan, *t* > *tx*; Antonia Anaut: “Mítilàk ronkalés trájean eta *neskattxúak* ere bái, gúziak” (Artola 1977: 87); cf. Izaban, top. *Rettxarrea*.

b) Sudurkarien sailari dagokionez, oro har, bustidura automatikoa gertatzen ez dela esan genezake nahiz eta, noizean behin, Erronkariko toponimian *in* > *ñ* garapenaren adibideak aurki daitezkeen: Bidankozeko azpieuskalkian *Vinies* (Bid. 1345) baina *Viñes* (1652) eta *Viñosse* (1561), *Arrimontoña* (1994), *Ferñando* (1910; *Fer(e)nando*); Burgin *Vinies* (1345), *Vinnes* (1439) baina *Viñes* (1441); *Garden SanSoayne* (1644) baina *Sansoña* (1850). Urzainkiko azpieuskalkian *Doayn arrart* (Urz. 1599), *Doayn artea* (1595) baina *Solondoia* (Izb. 1994; *Sorondoia*).

27.– Azkuek kontatzen duenez (1931: 219), Uztarrozeko emakume batzuek zuzendu zioten, berak [irur] esan ordez, [iruf] ebakitzen zuelako.

*Doñaarrartea* (1710) eta *Doñartea* (1802). Uztarrozeko azpieuskalkian *Andoña* (1778; cf. Gipuzkoan *Andoain* eta Nabaskozeko almiranterrian, *Adoain*). Ahozko mintzairan, Izaban *ñor* (“ñóreki’re ézin da élé èrran, ñoreki”, Artola 1977: 79) Uztarrozen, berriz, *eur* (Artola 1980: 54).

Dena dela, kasu gehienetan *in taldea* aldatu gabe gorde da; honela bada, Bidankozeko azpieuskalkiko Burgi herrian, *Argayne de Garçateña* (1655), *Barcinea* (1916); Gardeko hizkeran, *gainarako*, *gainenik*, (*Catálogo*). Urzainkiko azpieuskalkian, *Gaztulugainea* (Urz. 1802). Uztarrozeko azpieuskalkiko topónimian, *Mulidoyaco-gaina* (Uzt. 1859), *Gastarrico-gaina* (1859), *Ochogorrico-gaina* (1859), *Ochogorri-gaina* (1928), *Chardacaco-gaina* (1856), *Chardaco-gaina* (1928). Larrañen, berriz, -gaña: *Chardékagagna* (1974). Bestalde, Izabako XVI. mendeko agiri batzuetan *in > ñ* bustidura dokumenta daitekeen arren, oro har, garapen honek ez zuen arrakastarik izan, topónimian eta ahozko mintzairan jasotzen diren adibide gehienek *in taldea* aldatu gabe gorde dutelarik: *Ardibidegaña* (1563) eta *Ardibidegaña* (1569) baina *Ardibidegaynea* (1597), *Ardiuidegaynea* (1615), *Arrdibide gaynea* (1675); egungo aldaerak: *Ardibideginea* (1972), *Ardibidiginea* (1977). Gauza bera gertatzen da Izabako ahozko mintzairan; Antonia Anaut: “ni áino’re (sic) kében, tzákin noiz ártio” (Artola 1977: 79), “lán anitx eta éino’rè úrte kuétra(r)a éltu” (id.: 81), “Ikusi dúr ánitz xoáitan, ní mino gaztiágó” (id.: 81), “ta kóla, Zarakózaradréino, egútxa bárna” (id.: 83), “ni bino zarrágó” (id.: 84), “karreterá Izàbaradréino? Izabarradréino (sic) badiéla eín úrte kóna” (id.: 94).

Aurrealdeko bokal erdikoaz bukatutiko diptongo bat sudurkari baten aurrean dagoenean -*Vin-* > -*Vy-* aldaketa errazten da baldin eta hurrengo morfema bokalez hasten bada: *Doayn arrart* (Urz. 1599) baina *Doyay arrartea* (1630) eta *Doyerarte* (1669). Ahozko hizkuntzan garapen berbera gauzatzen da; Antonia Anaut andrearen mintzoan: “zomait élé, bai, *bayà*...” (Artola 1977: 79).

Sudurkari sabaikariak balio adierazgarria du: *Ferñando* (Bid. 1910), *Mañuelico* (Bur. 1994). Ahozko mintzairan txikigarria adierazteko erabiltzen zen: Izabako Antonia Anaut andreak hitz hauek erabiltzen zituen, *amaño* ‘hurbil’, *amiñi* ‘pixka’, *amiño* ‘id.’; orobat, Uztarrozeko Doroteo De Miguel jaunak, *ñoak* ‘txikiak’, *ñotto* ‘oso txikia’ (*ño* txikigarriaren txikigarria).

### c) Txistukari frikariak

Txistukari baten aurrean *i-z* bukatutiko diptongoa dugunean bustidura automatikoa gauzatzen da: *Viz*, *Vis* > *Vx*. Hona hemen esandakoa baieztagatzen duten adibide batzuk: erronkarieraz, *gaxoak* (Antonia Anaut); topónimian, *Lexar alorra* (Izb. 1595), *Lexardoya* (Bur. 1626), *Lexarra* (Err. 1634), *Lexarchipia* (Err. Bid. 1634), *Lijardoya* (Gar. 1678), *Lejarra* (Bid. 1708; *leizar*), *Lejardoya* (1722; cf. Mitxelena 1953 § 405: “*le(i)zar*, *lexar*, ‘fresno’... *Lexarralde*, *Lejarazu*, *Lejarreta*, *Lejarrola*, *Lejarza...*”). *Lexe* (Izb. stg. 1589; *leize*), *Lexa* (1614), *Leja* (1650); *Lezarena* (Err. 1672; *leizerena*) eta *Lexarena* (1836). *Yturgaxtoa* (Err. 1617), *Uturgastoa* (1836). Noizean behin txistukariaren aurreko bokala entzun daiteke: *gáixki* (Antonia Anaut), *Aixpilaga* (Izb. 1992), *Aispilaga* (1828), *Ispilaga* (1992) baina *Axpilaga* (Izb. 1568); cf. *OEH*, s.v. ‘aizpil’: “*aizpil* (R, S), *azpil* (L, S, Sal; Lcq, H), *axpil* (R)”.

Bustidura adierazgarria usu gertatzen da (Izaban, *Borda Gixon* eta *Borda Faxi*), bereziki z > x bilakaera errazzuz: *Aranjurieta* (Bur. 1627), *Bordaxarra* (Bur. 1658), *Donepetri Jarra* (Bur. 1627), *Jora Jibicoa* (Bur. 1645), *Sorasibicoa* (1722), *Meaca Xorrocha* (Uzt. 1345), *Rotaxarreta* (Uzt. 1668), *Sabalcoa* (Uzt. 1806) eta *Xazpixarra* (Bid. 1995). Hari beretik, *Axpilaga* (Izb. 1568); cf. *aizpil* eta *azpil*.

### d) Txistukari afrikatuak

Txistukari afrikatuak bustidura automatikoa gorago aipatu den ingurune berean gauzatzen da, alegia, *i-z* bukatutiko diptongo baten atzean: *Vitz* > *Vtx*. Izan ere, hona hemen esandakoa frogatzen duten adibide batzuk: Bidankozeko azpieuskalkiko topónimian *Ari(s)bákotxa* (Bid. 1995), *Arrigachaga* (Bur. 1642), *Basagacha* (Bur. 1849). Urzainkiko azpieuskalkiko topónimian *Arechebacocha* (Urz. 1658), *Arisbacocha* (Err. 1714), *Mēdigacha* (Err. 1480), *Recagacha* (Err. 1672). Uztarrozeko azpieuskalkian *Berrobacocha* (Uzt. 1588), *Yzeybacocha* (Uzt. 1676), *Esabacocha* eta *Mendigatxa* (Izb. 1564); ahozko mintzairan *bakutxa* (Antonia Anaut).

Uztarrozeko *Achpea* (1806) topónimoaren kasu berezia aipatu nahiko nuke: izen honetan gorago eman dugun *Vitz* > *Vtx* erregela betetzen denez gero, badakigu *haitz pe* oinarritik eratorria dela, baina jakin ere badakigu oinarri hori laburtu eta (*h*)*aitz pe* > \**aizpe* bilakaera gertatu zela, ditugun aldaera guztiekin (aipatu hura izan ezik) txistukari frikaria dutelako: *Axpi* (Uzt. 1650; *Aspea*, 1806), *Aspea* (Bur. 1439; *Axpea*, 1655), e.a.

Bestalde, bi txistukari elkarren ondoan kausitzen direnean erabat labur daitezke: *Vitz + z* > *Vx*. Izan ere, Izaban *Ugaxiloa* (1624), *UgaJiloa* (1649).

Beste inguruneetan dauden txistukariak ere, analogiaz edo bustidura adierazgarria dela medio, txetxekari bilaka daitezke: ahozko mintzairan, *anitx*; topónimian, *Chicharana* (Err. 1589), *Chachorría* (Gar. 1613). Kasu guzietan, halere, *ch* grafiak ez du txetxekaria islatzen, aitzitik, kontsonante afrikatu bizkar-albeolarearen ordez egon daiteke: *Hicachburua* (1643); *Puchucoerreca* (1565).

### e) Albokoak

Gauza jakina den arren gogora dezagun latineko -*Ll-* kontsonanteak, bere bilakaera diakronikoan, -*l-* eman duela euskaraz: *ballena* > *balea*, *cella* > *gela*, e.a. (Mitxelena 1977: 320 eta 1953 § 271). Hori dela eta lat. *castellu* hitzak euskaraz *gaztelu* (edota, asimilazioa dela medio, erronkarieraz *gaztulu*) eman du: adibidez, *Gastuluzarra* (Gar. 1675). Euskaraz latinetiko hitz batean *l* dugunean, hegoaldeko erromantzeetan *ll* izaten dute maiz<sup>28</sup>: esate baterako, Zaraitzuko *Galoze* herria erdaraz *Gallués* deitzen da, euskaraz *arratzelu* dena gaztelerez *rastrillo*, txesoz, Echoko aragoieraz, *restillero* eta euskaraz *arratzelu* (gaskoinez ez da halaxe gertatzen, cf. *arrastoulhà*).

28.– Cf. Mitxelena 1977: 313. Halere, iparraldekoetan ez da hala gertatzen; -*l-* ordez, -*r-* edota -*lh-* izaten dute: esaterako, gaskoinez *castera* (< lat. *castellu*) hitza ibiltzen dute.

Erronkariko toponimian latinetiko *ll* oraindik bizirik diraelako adibide ugari ditugu, horien ondoan aldaera berriak sabaikaldu gabeak edo, hobe esanda, despatalizatuak ditugularik: lat. *serralia* ('saraila'), *Cherralla borda* (Err. 1651) baina *CherralaBorda* (Err. 1836); *Cherrall* (Urz. 1570) baina *Cherral* (Urz. 1598) eta *Cherrail* (Urz. 1802); era berean, lat. *cusculia* ('txapar'), *Cusquilleta* (Bur. 1626) eta *Cuscallueta* (Err. 1635) baina *Cosculietu* (Err. 1836). Dena den, azken kasu honi dagokionez, geroxeago ikusiko dugun bezala *u* bokalak albokoaren sabaikaritza eragin dezake.

Toponimian *-ilV-* > *-llV-* bustiduraren adibide batzuk ditugun arren, oro har, bilakaera hau ez zen gauzatzen, kasu gehienetan bokal ondoko albokoa aski ongi gorde zelarik: *ile* 'artile', *makila*, e.a. Bidankozeko toponimian *Armutilaga* (1778), *Cubilea* (1892), *Pilalteia* (1892) eta antroponomioen artean *Camargujlea* (1562) eta *Milikotx* (1992). Erronkariko toponimian *Mendibilea* (1613), *Ybarciloa* (1653), *Ylarria* (1672), *Uturgiloa* (1677). Uztarrozeko toponimian *Ylobieta* (1614; *Lobieta*, 1712), *Lurguila* (1614), *Choromilo* (1652), *Arrilucea* (1778), *Aspilaga* (1806). Izan ere, Ricardo Gómezek (1991: 406) ematen dituen ondoko adibideetan argi geratzen denez, erronkarieraz *ilV* taldea aldatu gabe eta hagitz egonkor gorde zen: *ilordian*, *ilen*, *emoyle*, *eguile* eta *aylatu*.

Esanak esan, bustidura mota hau hegoaldeko azpieuskalkietan Uztarrozekean baino errazago gerta zitekeela dirudi; izan ere, Bidankozeko azpieuskalkiko toponimian adibide hauek ditugu: *Bilasco* (Bid. 1652) baina *Billasco* (1771); *Maylúa* (Bur. 1569) baina *Meyllaca* (1627) eta *Mellúa* (1629). Urzainkiko azpieuskalkiko toponimian *Cruchilaga* (Err. 1593), *Cruchillaga* (1836). Uztarrozekeko azpieuskalkiko toponimian, berriz, *i* bokalak eragindako bustiduraren adibide garbirik ez dugu<sup>29</sup>; alta, *u* bokalaren eraginez albokoa busti daiteke (-*uli*- > -*ulli*-, -*ullu*-): *Mulidoya* (1859) baina *Mullidoya* (1806) eta *Mulludoya* (1778); cf. herri honetako euskaraz, *éllu* 'euli' eta Bidankozeko toponimian, halaber, *Tipullerria* (<*tipula herri.a*; 1668) eta *Egullore* (<(h)eji lehor; 1626).

Honela bada, bustidura automatikoaren arrastoak aurkitu baditugu ere, alboko sabaikaria kasu gehienetan behintzat apiko-albeolarearen bustidura adierazgarriaren ondorio dugu (*llerko* 'lerko, pinu txikia', *llaburtu* 'laburto', *llarne* 'larrain', *pollit* 'polit'), beste kasu askotan hitz mailegatuen zati delarik (*akullu*, *folla* 'poltsa', *llollu* 'iraka', *milla*, e.a.; cf. Mitxelena 1954: 291). Erronkaribarreko toponimian *l* → *ll* egokitzapenaren adibide ugari dugu: Bidankozeko azpieuskalkian *Llarne ederra* (Gar. 1620), *Llarrincoa* (Bur. 1643), *Oleguiondoa* (Bur. 1651) baina *Olleguiondoa* (Bur. 1672), *Allorcoa* (Gar. 1722); Urzainkiko azpieuskalkiko toponimian *Caplana* (Err. 1596) baina *Capellana* (Err. 1616), orobat, *Llarnehederra* (Err. 1677); Uztarrozekeko azpieuskalkiko toponimian *Bru Llarneta* (Uzt. 1676), *Ellurridoya* eta *Ullurridoya* (Uzt. 1806), *Llarrencoa* (id.), *Llarrenzarra* (id.).

#### f) Dardarkaria

Kontsonante dardarkariei dagokienez, *r* → *ll* bustidura gerta daiteke, balio adierazgarria duelarik (*alliko* 'harliko, hari txikia', *bellatu* 'beratu', *ello* 'ero', *ullan* 'hurran', *bello* 'bero',

29.- Egiaz, *Andilla* (1885) dugu baina *Anduña* lekuizenaren aldaera delakoan nago.

e.a. (Mitxelena 1954: 291). Antonia Anaut andrearen hitz hauek egokitzapen berbera erakusten dute: "Sú egín étsen, eta *bello*, claro... Súan, súyan, zánkoak *bélico* kor... eta aurrék írian? pues súian *bélico*" (Artola 1977: 93). Antropónimian bustidura adierazgarriaren ondorioz pertsona izen berezi hau sortu da: *Magi* (Gar. 1525; Bur. 1569) edo beste era batera idatzita *Malli* (Bur. 1662; cf. *Mari*). Burgiko toponimian: *Mallilua Jede Ullina* (1441), alegia, *Mallilua Xede Urrina* (cf. *urruna*).

## 2.8) Kontsonante taldeak

### a) Herskaria + dardarkaria

Gorago esan bezala, sinkopa erronkarieraren ezaugarri nagusienetariko bat dugu. Bokal erorketaren ondorioz kontsonante multzoak sortzen dira, guztien artean herskariek dardarkariekin osatzen dutenak garrantzitsuenak direlarik: *-dr-* (Bid. *Andrelopeburua*), *-tr-* (Uzt. *Zotrapea*), *-gr-* (Urz. *Agrakozokoa*); taldearen hasieran txistukari bat erants daiteke: *-str-* (Bid. *Astrandia*); cf. gai honetzaz, bokalismoan, sinkopari buruzko atala (A § 1.7). (Bid. *Astrandia*); cf. gai honetzaz, bokalismoan, sinkopari buruzko atala (A § 1.7).

### b) Sudurkaria + herskaria

*sud. + ezpainkaria*: zubereraz bezala, sudurkariaren atzean herskari ozenaren eta gorraren arteko neutralizazioa ez da gertatzen eta, horregatik, sudurkariaren ondoren herskari ahoskabea egon daiteke inongo oztoporik gabe: *-np*. Izan ere, euskalki gehienetan *denbora* dugun arren, erronkarieraz *tenpra* da forma bakarra, latinetik ia zuzenean eta aldaera handirik jasan gabe eratorria (cf. lat. *tempora*); Antonia Anaut: "Ník eztú entzún kében uskáraz, ez kántarik, et'ez koláko elizáko gáizarik bártere; ene *tenpran* yá ez, bátre" (Artola 1977: 80).

Sudurkariaren atzean herskari ozenak egon daitezke baina agitz aldakorrak dira eta laburtzeko joera dute; esaterako, *nb* taldeak *m* bilakatzeko joera du: *Ganboa* (Bur. 1439); *Gamulucandia* (Urz. 1573) eta *Ganbulucandia* (1574); *Gamulucea* (Gar. 1573) eta *Gambulucea* (1850); *Goymuru Saysa* (Uzt. 1345) eta *Goyenburu* (1588); *Alchumbidea* (Izb. 1828) eta *Altxumidea* (1986); *Amuluxanco* (Urz. 1635) eta *Ambulezancueta* (1802). Toponimiaz gainera, ahozko mintzairan ere, *nb* > *m* bilakaera hau oso arrunta zen; Antonia Anaut: "erráitan guniézun ze(n)mait éle... zomait ele, bai, bayà" (Artola 1977: 79), "zónbat urte, zómat úrte" (id.), "zomait áldiz, zomáit ere bái buruzpíko" (id.: 83). Mitxelenak (1954: 293) adibide hauek jasotzen ditu: *balimadu* (<*baldin badu*), *zomat* (<*zenbat*), *zomait* (<*zenbait*). Halaber, kontrako garapena gerta liteke, hots, *M* > *nb*: cf. Urzainkin, *Ganbra* deitura (< lat. *camara* < grek. *χαμάρα*).

*sud. + horzkaria*: gorago esan dugunez, erronkarieraz sudurkari atzean kontsonante gorrak gorde dira nahiz eta beste euskalki gehienetan kontsonante horiek ozen bilakatu zaizkigu; toponimian adibide ugari ditugu; esaterako, *Urdantelleta* (Izb. 1593) eta *Zantua* (Izb. 1994). Erronkarieraz adibide franko aurki daiteke; honela bada, Erronkariko Julian Gayarrek bere izebari bidali zion gutunean: *orientaco*; Bonaparte printzeak idatzitako *Catalogo de palabras del dialecto de Garde* hiztegian: *saintu*; Izabako Antonia Anaut andrearen hitzetan: "Ta zük nontik dakizu gú gindela kuek?" (Artola 1977: 79); "Séntoten dela kóla, déus ere... nik ez

izártan déus ere, *sénto* deila kóla..." (id.: 80); "bí *egunentako* sólo, ézin egon òbro" (id.: 82); emakume honek idatzitako postaletan: "eta sin deila urte berri ona *gucientaco*" (id.: 104); "esquer anich, guizon *borantate oncorrequi*" (id.: 105); Uztarrozeko Doroteo de Miguel jaunaren hizkeran: *Abentu, Erribrarentako, Igante, nonti, suarentako, zientako*, e.a. (Artola 1980: 49 eta ond.).

Erronkariko toponimian aldaera ozenak dauden arren (Uzt. *Anduñaburua, Anduña*), zaharrenak horzkari ahoskabea dutenak dira: *Antuna* (Uzt. 1631) eta *Antuña* (1630) egun ibiltzen duten aldaera hauxe delarik. Halere, jatorrian ahostuna duten taldeak gorde dira (cf. gorago *Andrelopeburua*); alegia, ohikoa ez bada ere, sudurkariaren atzean herskari ozena egon daiteke; izan ere, Julian Gayarreren gutunean: *abendua* (-nd-) eta *ongui* (-ng-); baina eskutitz berean: *orientaco* (-nt-).

*sud. + belarea*: Toponimian *nk* taldea ongi gorde zen: *Ezpeluncondoa* (Gar. 1632; lat. *spelunca*). Izan ere, aurreko kasuetan bezala, erronkarieraz, gehienetan, kontsonante gorra dugu: *ónki, égunko, oráiko* (Izb. Antonia Anaut).

#### c) *Txistukaria + herskaria*

*txist. + d > st*: *Ariztoya* (Err. 1631; *Areztoya*, 1638), *Aristoya* (1637; Bid. 1710), *Urristoya* (Err. 1836). Bestalde, Erronkaribarreko toponimian *Sagartoia* eta *Sagastoia* lekuizenak nahastu dira (cf. Mitxelena 1953 §§ 532 eta 538): *Sagartoya* (Urz. 1602; Err. 1678; Uzt. 1724), *Sagastoya* (Bid. 1654; Uzt. 1806; Err. 1836), *Sarastoya* (Uzt. 1676) eta aldaera berria *Sagardoya* (Urz. 1802; Err. 1836). Dardarkaria eta txistukaria morfema mugan txandakatzen ziren; hau da, hitz elkartu eta eratorriean *sagats- / sagar-* bikotea genuen, mugatzailearen aurreko lekuaren ere gauza bera gertatzen zelarik: *Gardelats / Gardelar* edo *Etxelats / Etxelar*.

*txist. + b > sp*: *Vrruxpurua* (Uzt. 1614), *Asperro* (Uzt. 1704).

#### d) *Kontsonantea + txistukaria*

Zubereraz *n* eta *l* atzean txistukari frikari bat dagoenean, eskuarki, afrikatu bezala ebaki ohi da. Erronkarieraz, zenbait kasutan, afrikatua sabaikari bihur zitekeen: Izabako toponimian (*S)antsomarro* > *Antxomarro* edo *Anttomarro*. Bidankozeko toponimian lekuizen afrikatu hauek izango genituzke: *Berreintze*. Urzainkiko toponimian *Itzaltzu*. Erronkarin *Bizkantz*, *Mendibeltza*. Uztarrozeko azpieuskalkiko toponimian, Izaban *Agintzea, Intzaga, Izaba-Itzaltzu, Ontzibiet*a eta Uztarrozen *Beltzuntze, Ontziarria*. Azkuek (1931: 315) esaera zahar honen berri ematen digu: "Izan nintzen *Beltzuntzen*, kan ogi ederrik ezen, gore apez mutur-beltza asu-biltan ari zen". Mailegu berriean, berriz, ez da aldaketarik gertatu: *manso* 'mantso', *pensa* 'pentsa'.

Frikariak dardarkari baten atzean daudenean afrikatu bilakatzen direnez, hitz bukaeretan afrikatua da nagusi (*artz* 'hartz', *ortz* 'hortz', *bartx* 'bartz'), baina hau ez da honela kasu guztieta; esate baterako, Bidankozen *örzi* dugu, hots, 'ehortzi' eta hemendik Izabako *orz* hitza eratorri da, bukaeran frikaria duela.

Hitz barruan *r + afrikatua* taldea ager zitekeen (*zortzi, mertxede*) baina kasu gehienetan *r + frikaria* gorde zen: *-tarzun* 'tasun', *ürxo* 'uso', *ersi* 'hertsia', Urzainkiko toponimian *Urza* (eta talde berbera *Urzainki* toponimo nagusian ere). Mota honetako lekuizenen aldaera normalizatua proposatzeko unean zaila zaigu erabakitzea frikariaz ala afrikatuaz idatzi behar diren, egungo herriak toponimoak izendatzean *rz* taldeaz ebakitzen baitu, *rtz* arbuiatzen duelarik (Bid. *Arzarena, Gar. Bizkarza, Urz. Arzanagerre, Err. Nabarzato, Izb. Belabarze*). Izan ere, Azkuek (1931: 301) kopla zahar batean jaso zuenez, *rz* genuen *Belabarze* toponimoaren ohiko erabilera: *Ama Berjina Martxokoetan / BELABARZEKO ordokietan / obeki egonen nintzen / Bardeako llerkopetan*.

#### e) *Albokoa + herskaria*

Sudurkarien kasuan bezala, kontsonante albokoa herskari gor batekin lotzen denean herskaria ez da ozentzen; aitzitik, ahoskabetasuna ez da ia sekula galtzen: *Alkarrei* (Uzt. top.), *älke* 'lotsa', Oihenartek, aldiz, *ahalge* ibiliko zukeen (Mitxelena 1954: 292).

Oro har, latinetiko *lt* taldea ongi gorde da (*Caltua, Izb. 1592; Err. 1616; Bur. 1627; Gar. 1642; lat. saltum*), Erronkaribarretik kanpo *ld* garatzen delarik (*Zaldua, Irunberri 1703*).

Dena den, salbuespen baten batean ozenketa gertatu da: lat. *culter* > erron. *golde*, Bid. *goldarapo, goldabearri*, Uzt. *goldabuztan* 'endaitz', Izb. *goldanabar* 'goldearen hortza' (Mitxelena 1954: 292). Toponimian ozenketaren adibide banaka batzuk ditugun arren (gehienak Bidankozeko azpieuskalkikoak) kontsonante albokoaren atzean horzkari gorra da nagusi: Bidankozen *Marigaldeburua* (1464; *Ugalde* Bidankozeko deitura, *Uhalderna* Bidankozeko borda eta etxe izena) baina Bidankozen bertan *Pilaaltea* (1710); Garden *BagoSa malda* (1659) baina Izaban *Bago malta* (1623). Herri honetan *Cerrotaldea* (1916; aldaera guztiz berria) baina halaber *Cerrotaltea* (1601), *Osin hugalteo* (1595), *San Julian altea* (1828) eta *Ugachalteo* (1828); Uztarrozen *Arralteo* (1730), *Errotaltea* (1806); Erronkarin *Donamaria Altea* (1892), *Done miguele altea* (1665), *Ernega altea* (1657), *Gardeco herrotaltea* (1670), *Nabarzatoalteo* (1702), *San Juan altea* (1615), *San Miguel Altea* (1836), *Yquialtea* (1836); *Burgin Cibialtea* (Bur. 1624), *Escarrialtea* (Bur. 1636), *Rotaltea* (Bur. 1653), *Gaztelualtea* (Bur. 1722), *Uturralteo* (Bur. 1749).

Toponimia eta ahozko hizkuntza bat datoz, Erronkariko hiztunen ezpainen kontsonante gorra besterik ez baitzen entzuten: "eltu duc natibilitate"; "élтан bánaz Urtebérrira" (Antonia Anaut). Mitxelenak (1954: 292) adibide hauek jaso zituen: *alte, altaka, alteka* 'alde', *altapa* 'aldapa', *altatu* 'aldatu', *galtegin* 'galdegin', *aultu* 'ahuldu', *galtu* 'galdu', e.a. Laburbilduz, herskari gorra Erronkaribarreko azpieuskalki guztieta gorde zen nahiz eta, ikusi den bezala, Bidankozekoan ozentzeko joera nabaritu.

#### f) *Dardarkaria + kontsonante*

*dard. + herskaria*: zuzenean lotzen dira, hots, *r + d > rd*. Toponimian, *Ygardoya* (Bid. 1590), *Chapardoya* (Err. 1615), *Magardoya* (Bid. 1778). Morfema mugan dagoen txistukaria dardarkariarekin txandaka daitekeenez gero, *Burdinsagastoyeta, Burguinsagastoya* eta *Burguinsarastoya* (Izb. 1828), baina *Sagartoya* (Urz. 1602; Err. 1678), *Sagartoyeta* (Urz.

1632), *Bornas Sagartoyeta* (Izb. 1564), *BorguSagar toyeta* (Izb. 1654). Bestalde, -r/-s txandakatze bera *intxaur* hitzaren elkartuetan nabaritzen da; esaterako, *Inxauspe* (Santa-Graziko eta Larrañeko deitura), *Intxauspe* (Urzainkiko deitura) eta *Ychaguspe* (1626an Erronkariko deitura), baina 1563an Izaban ingurune berean dardarkaria dugu, *Ychagurpe* eta *Ychagurspe*, azken honek bi kontsonanteak elkartzen dituelarik.

*dard. + txistukaria*: eskuarki, dardarkariak txistukariarekin osatzen duen taldea gorde zen (-tarzun, ūrxo, mertxede, e.a.; ik. gorago A § 2.8d puntu). Dena den, Uztarrozeko azpieuskalkian batasunik ez zegoela dirudi: Izaban *bost* (ordinala, ordea, bòrzgarna; cf. Artola 1977: 81) eta Uztarrozen *borz* (eta *bos* ere bai; cf. Artola 1980: 57); Izaban *Usteinki* eta Uztarrozen *Urzainki*; Izaban *ostegun* eta *ostrale* baina Uztarrozen *orzagun* eta *orzilare*; Izaban *bustegia* (hots, ‘buruzagia’) baina Uztarrozen *burzegia* (Mitxelena 1977: 363-4). Herri honetako toponimian *Ussagoyena* (1614) toponimoa dugu, baina mende berean *Uchurgoyena* (1659) eta *Usurgoyena* (1676). Urzainkiko azpieuskalkiko toponimian *rz* taldea dugula nabaritzen da, Erronkariko toponimo hau metatesiak sortua dela baitirudi: *Ucurteguia* (1653). Bidankozeko azpieuskalkiari dagokionez, taldea egonkorra dugu: Gardeko toponimian *Urçunondoia* (1630) eta *Urzungane ondoia* (1667); sinkoparen ondorioz, *Murzabala* (Gar. 1661) eta *Urzabala* (1724); herri honetako hizkeran *berze*, *ontarzun* (Bonaparte, *Catálogo*). Hala eta guztiz ere, zenbait aldaera berrian dardarkaria gal daiteke: *Atxiloa* (Bid. 1992) baina *Arjiloa* (1620) eta *Argiloa* (1836), hots, *harr(i)-zilo-a*. Ildo beretik, Burgiko toponimo honetan *r(t)z* aldea *st* bihurtu zaigu: *Garziatena* (Bur. 1541), *Garçateña* (1643) *Gastateña* (1892).

Kontrako bilakaera gerta liteke, Uztarrozeko adibide honetan txistukariaren aurrean lardarkaria “berrezarri” da: *Betzula* (1859; Larrañen, *Betçulaibarra* eta *Betculameheca*, 832), baina *Bertxula* (1994). Era berean urkariak txandaka daitezke *rz* taldea osatzeko: saterako, Uztarrozen, 1588an *Belcunce* zena, 1994an *Berzunze* bilakatu da.

## AZENTUA

Ildo Mitxelena maisuari, 1952ko udazkenean Izaban eta Uztarrozen egon zenean, biziki arrigarri suertatu zitzaion herri horietan euskaraz mintzatzean ibiltzen zuten doinua, azteleraren antzeko intentsitate-azentua eta itxura fonetiko bertsua zituztelako (cf. 1954: 294-).

Izan ere, gaztelerak bezala erronkarierak ere hitz oxitonoak, paroxitonoak eta oparoxitonoak izan ditzake. Zubereraz, esaterako, azken hirugarren silaban ezin da azenturik: baina erronkarieraz eta gazteleraz azentuaketa mota hori guztiz zilegi da, erronkarieraren litzerroetan eta partizipioetan (*árgudi* ‘erasi’, *ézkapa* ‘ihes egin’, *xátetu* ‘garbitu’) eta hitz ilte anitzetan ere (*bézino* ‘auzo, aldamenekoa’, *kósino* ‘lehengusua’) ebakera mota hori igusi delarik. Deklinabidean era honetako ele sorta ederra dugu hitz paroxitonoei ugatzailea gaineratzen bazaie proparoxitono bilakatzen direlako; izan ere, erronkarieraz, bereraz ez bezala, mugatzaileak ez du azentuaren atzerapena behartzen: honela, zubereraz *íthil* dugu, baina mugatzailea eransteen *mithíla*; erronkarieraz, berriz, *mítil*, eta

mugatzailearekin, *mítila*, azentua zegoen lekutik higitu ez delarik<sup>30</sup>. Erronkarieraz hitz multzo batek azentu nagusi bakar bat izan dezake (esaterako, *izena* + *adj.*), hitzak esaldiaren barnean duen lekuaren arabera azentua silaba batean edo bestean ezar daitekeelarik (*ánitx* edo *anítx*, *óbro* edo *obró*).

Erronkariko toponimiari dagokionez, azentuaketa proparoxitonoa behin baino gehiagotan entzun dugu gure informatzaileen ahotan, erronkarieraz (zubereraz bezala) hitz elkartu baten bigarren osagaiaren hasierako silabak azentua bereganatzen duelako (cf. Mitxelena 1977: 416): [*aribákoča*] (1994; Bidankozeko Crisanto Pasquel jauna), [*arišbákoča*] (1992; Urzankiko Nikolas Nekotxea), [*beróbákoča*] (1994; Uztarrozeko Manuel Labairu). Gazteleraren eragina dela eta, azentuaketa paroxitonoa entzun dezakegu: [*kañadašíloa*] (1992; Izabako Justo Bake-Salbotx) baina [*kañadašílóa*] (NTEM-ko inkestetan); orobat, silaba baten erorketaren ondorioz [*kanašílos*] (1986; Burgiko Eusebio Tolosana).

## B) MORFOLOGIA

Atal honetan toponimian maizenik dokumentatzen diren atzizkiak aipatuko ditugu: alde batetik, toki izenen barnean gordetzen diren horiek eta, bestetik, Erronkaribarreko lekuizenen osakeran nabarmentzen diren eratorpenaren atzizkirik garrantzitsuenak (agirietan erakusten duten grafia berberari eutsiko zaiolarik).

### 1. DEKLINABIDEA

Erronkarieraren deklinabidea deskribatzerakoan toponimiak lagunza eman diezagukeen arren, kasu gehienak azaltzeko ez dela gai aitortu beharra dago, toponimian kausi daitezkeen kasu bakanak absolutiboa eta genitiboa direlarik:

1) Absolutiboa.- Toponimian adibide ugari ditugu, ia toponimo guztiak absolutiboa daudelako: Bidankozeko azpieuskalkian *Arguibela* (Bid. 1345), *Ardanbidea* (Bur. 1345), *Laerayngorria* (Bur. 1569), *Yriburua* (Gar. 1560). Urzainkikoan *Axo coqoa* (Urz. 1560), *Ogesquiederra* (Err. 1634). Uztarrozekoan *Goymuru Saysa* (Uzt. 1345), *Adacidoya* (Izb. 1345). Izenondorik edota posposiziorik ez dutenean, izen bereziak baitira, mugagabeak deklinatuko ditugu: *Vinies* (Bid. 1345), *Done Julio* (Bur. 1345), *Vizcançu* (Gar. 1568), *Aciaritu* (Urz. 1598), *Nabarçato* (Err. 1568), *Palpate* (Uzt. 1345).

2) Leku genitiboa.- Bidankozeko azpieuskalkiko toponimian *Atetuco-çaltua* (Bid. 1611), *Uturlosco* (Gar. 1631), *Artecoeguia* (Bur. 1625), *Artequeguia* (Bur. 1641). Urzainkiko

30.– Halaz ere, hau ez da beti honela gertatzen, zenbait kasutan azentuaren hidura berezi bat suertatzen baita erronkarieraz eta zubereraz. Izan ere, a bokalez bukatutiko hitzek mugatzailea hartzen dutenean elkarren ondoan kausitu *a* + *a* bokalak batzen dira eta laburtzapenaren ondorioz sortu den *a* bokalak azentua bereganatzen du, hau lehen zegoen lekutik mugiaraziz: *góiza*, *alába* (izen mugagabeak), *gaizá*, *alabá* (izen mugatuak); gauza bera gertatzen zen pluraleko kasuen *e* atzizkiarekin elkartzean: ergatiboan, *aita t'amék* (halaber, *gízon* baina *gizonék*, *emázte* baina *emazték*, e.a.). Gai honi buruz, cf. Mitxelena 1954: 295. Ahozko hizkeran erabiltzen ziren adibideak lan horretatik hartu dira.

azpieuskalkiko toponimian *Agracoçoqua* (Urz. 1594) eta *Aguerocoçocoa* (Err. 1634). Uztarrozko azpieuskalkiko toponimian *Barrencoa* (Uzt. 1828), *Baraicoa* (Uzt. 1856), *Arraco* (Izb. 1639), *Arayncougacha* (Izb. 1567).

3) Jabego genitiboa.- Gardeko toponimian *Ajorenbochea* (Gar. 1590) eta *Mearenalorra* (Gar. 1722; *Mea*, XVI. mendeko Gardeko deitura; *Mehia*, XVII. ekoia). Erronkariko toponimian *Torresenborda*: “Bordajarra la alta ó Torresenborda” (1836), “Bordajarra la alta que llaman de Torres” (id.). Kasu askotan atzizkiaren ondoren izen bat ukan ordez, mugatzailea dugu: Bidankozeko azpieuskalkiko toponimian *Elicarena* (Bid. 1625), *Abesarena* (Bur. 1653), *Pascualena* (Bur. 1960), *AJerarena* (Gar. 1590). Urzainkiko toponimian *Yragoyenea* (Urz. 1617), *Aluarena* (Err. 1615). Uztarrozkoan: *Uztarroz Goyena* (Uzt. 1619), *Yrigoyena* (Uzt. 1651), *Belabarce als. Trulluarena* (Izb. 1573). Kontsonantez bukatutik izen batekin *Punta Largotena* (Bid. 1992; *Largot*, XVII. mendeko Bidankozeko deitura).

## 2. ERATORPENA

Hauexek dira Erronkaribarreko toponimian maizenik dokumentatzen diren eratorpenaren atzizkiak:

-aga: lekua adierazten duen atzizkia, Erronkaribar osoan ugaria. Bidankozeko azpieuskalkian: *Magardagaburua* (Bid. 1464), *Abormaga* (Bur. 1626), *Zerraga* (Gar. 1441). Urzainkiko azpieuskalkian: *Barangaga* (Urz. 1577), *Baraceaga* (Err. 1427). Uztarrozko azpieuskalkian: *Ariagasoroa* (Izb. 1572), *AmuSunaga* (Uzt. 1676)

-be: leku atzizkia; aurkientza baten beheko aldea adierazten du (cf. Villasante 1974: 115 eta Mitxelena 1953 § 140). Erronkariko toponimian oso gutxitan dokumentatua, -pe(a) aldaera askoz ere ugariagoa delarik. Dokumentatu den kasu bakanetan mugatzailea du: -bea. Bidankozeko azpieuskalkiko toponimian *Gambea* (Bid. 1778) eta *Arbea* (Bur. 1658). Halaber, Urzainkiko azpieuskalkiko toponimian *Arbea* (Err. 1647).

-doi (NB, L, E, Z), aldaera -dui (B): atzizki multzokaria. Orokorki, landare multzoa adierazten du baina ez beti, zenbait kasutan *Arkadoia* (Urz. 1974) bezalako adibideak izan ditzakegularik (Azkue: 1905-6, s.v. ‘arkadi’): “... monte muy pedregoso, *mont pieurreux, rocallieux...*”. Erronkaribarrean dokumentatu ditudan adibide guztieta atzizkiari mugatzailea erantsi ohi zaio; hona adibide banaka batzuk: Bidankozeko azpieuskalkian *Magardoia* (Bid. 1778), *Ylurridoya* (Bur. 1655) eta *Sugeundoya* (Gar. 1634). Urzainkiko azpieuskalkiko toponimian *Arandoia* (Urz. 1654) eta *Aristoya* (Err. 1836). Uztarrozko azpieuskalkian *Esparandoya* (Uzt. 1650), *Ydoya* (Izb. 1650).

-egi: hitz osoa izan daiteke eta orduan ‘mendi mazela’ edo ‘mendi saihetsa’ adierazten du; orobat, -tegi atzizkiaren aldaera izan daiteke, oro har, ‘leku’ esanahia duelarik: Bidankozeko azpieuskalkiko toponimian *Acarreguia* (Bid. 1892), *Artecoeguia* (Bur. 1643) eta *Gardegua* (Gar. 1634). Urzainkiko azpieuskalkiko toponimian *Urralegui* (Urz. 1617) eta *Arreguia* (Err. 1836). Uztarrozko azpieuskalkiko toponimian *Lerreguia* (Uzt. 1614) eta *Manchaceleguia* (Izb. 1828).

-eta: lekuzko atzizki multzokaria. Bidankozeko azpieuskalkiko toponimian *Caytueta* (Bid. 1623), *Aranjurieta* (Bur. 1627), *Puyeta* (Gar. 1627). Urzainkiko azpieuskalkiko toponimian *Sagartoyeta* (Urz. 1632), *Cabaleta* (Err. 1616). Uztarrozko azpieuskalkiko toponimian *Curuçheta* (Uzt. 1648), *Arbialorreta* (Izb. 1563).

-gu, ald. -gi: toponimian jaso diren kasu guztieta mugatzailea hartu du: -gua, -gia. Aditzei lotzen zaienean, aipatzen duten ekintza zein lekutan agitzen den adierazten du: *gordegu* ‘gordelekua’. Bidankozeko azpieuskalkiko toponimian *Garbucagua* (Gar. 1603). Urzainkiko azpieuskalkiko toponimian *Mostrugua* (Urz. 1654) eta *Moztrugua* (Urz. 1802), *Bagargua* (Urz. 1802) eta *Bagarguia* (1802). Uztarrozko azpieuskalkiko toponimian -gua: *Landa sargua* (Uzt. 1630), *Belagua en Luridoquigua* (Izb. 1568) eta -gia: *Landasargua* (Uzt. 1656), *Arrasargua*: “la endrecera que llaman la entrada de las arras” (Izb. 1603).

-etx: eusk. *etxe* hitzaren laburzapena, -itx, -utx, -otx aldaerak izan ditzakeelarik. Oro har pertsona-izenei lotzen zaie deiturak osatzeko (*Galetx*, *Garzetzx*, *Bortitzx*, *Martitzx*, *Arotx*, *Biliotx*, *Petrotx*, *Nekotx*, *Salbotx*, *Artutx*, e.a.). Toponimian *etxe* oinarria osorik gorde da: *Vilichia* (Bur. 1439), *Blichea* (Bur. 1647), *Mur do quoechea* (Izb. 1577) eta *Marzaceche* (Izb. 1850); aldaera laburtuak: *Mururducoch* (Izb. 1583) eta *Manzo garceh* (Gar. 1675). Atzizki honi buruz, ik. supra, A § 2.4b puntuak.

-(s)ko: atzizki txikigarria; toponimian mugatzailea hartu ohi du: 1) -ko(a). Bidankozeko azpieuskalkiko toponimian *Gurchi ybarcoa* (Bur. 1566), *Allorcoa* (Gar. 1722). Urzainkiko azpieuskalkiko toponimian *Arancoa* (Err. 1631). Uztarrozko azpieuskalkiko toponimian *Llarrencoa* (Uzt. 1806), *Belagua Lesancoa* (Izb. 1828), *Zipidejabalcoa* (id.). II 2) -sko(a) atzizkia (cf. Mitxelena 1953 § 544): *Armaxcua* (Urz. 1637; *Armascoa*, 1700). II 3) -ska atzizkia: *Botxaska* (Bur. 1992).

-oki: leku atzizkia; cf. *toki* (hitz osoa eta adiera bereko atzizkia): *Beloki*, *Irazoki*, *Oolloki* eta agian, *Ordoki*. Erronkariko toponimian *Olloquia* (1787); orobat, *Otsagiren* eta *Larrañeren* arteko Orhi mendiko iturri baten izena da (Mitxelena 1953 § 136).

-pe: -be atzizkiaren aldaera (cf. Mitxelena 1953 § 518 eta Villasante 1974: 115). Erronkaribarreko toponimian mugatzailea hartu ohi du: -pea. Bidankozeko azpieuskalkiko toponimian *Achupea* (Bid. 1892), *Axpea* (Bur. 1655), *Lapeispea* (Gar. 1676). Urzainkiko azpieuskalkiko toponimian *Corostipea* (Urz. 1570), *Lezapea* (Err. 1787). Uztarrozko azpieuskalkiko toponimian *Zotrapea* (Uzt. 1676) eta *Ormapea* (Izb. 1611), besteak beste.

-tegi: oro har, lekua adierazten duen atzizkia (leku estalia, itxia eta babestua izan daiteke; cf. Villasante 1974: 128). Erronkaribarreko toponimian mugatzailea hartu ohi du: -tegia. Bidankozeko azpieuskalkiko toponimian *Azalteguia* (Bid. 1892), *Arteguia* (Bur. 1749), *Laztateguia* (Gar. 1570). Urzainkiko azpieuskalkiko toponimian *Surrenteguia* (Urz. 1653), *Biorteguia* (Err. 1607). Uztarrozko azpieuskalkiko toponimian *Urdanteguieta* (Uzt. 1654) eta *Ceteguieta* (Izb. 1652).

-toi: -doi atzizkiaren aldaera (cf. Mitxelena 1953 § 558: *Ayastui*, *Ariztoy*, *Ariztuy*, *Haristoy*, e.a.). Bidankozeko azpieuskalkiko toponimian *Sagastoya* (Bid. 1654), *Haristoya* (Bur. 1896), *Burutoia* (Gar. 1634). Urzainkiko azpieuskalkiko toponimian *Yraztoybura* (Urz. 1595),

*Ariztoya* (Err. 1631). Uztarrozeko azpieuskalkiko toponimian *Sagartoia* (Uzt. 1724) eta *BorguSagar toyeta* (Izb. 1654).

-*xo*: atzizki txikikaria. Burgiko toponimian *Larrechoderreta* (1634).

-*tze*: atzizki multzokaria, -*tza* atzizkiaren aldaera (cf. Mitxelena 1953 § 570). Hitz berean txandakatzea gertatzen denean (esaterako, *baratza / baratze*), -*tze* atzizkidun aldaera ekialdeko dugu beti. || 1) Kasu batzutan mugatzailerik gabe dokumentatzen da: Bidankozeko azpieuskalkiko toponimian *Ezçaçe* (Bid. 1634), *Sevince* (Bur. 1975), *Arbarace* (Gar. 1573). Urzainkiko azpieuskalkiko toponimian *Anayçe* (Err. 1611). Uztarrozeko azpieuskalkiko toponimian *Belzunce* (Uzt. 1806) eta *Belabarçe* (Izb. 1611), besteak beste. || 2) Beste kasu askotan mugatzairela hartzen du: -*tzea*. Bidankozeko azpieuskalkiko toponimian *Arcea* (Bur. 1892). Urzainkiko azpieuskalkian *Babacea* (Urz. 1596), *Malbacea* (Urz. 1617), *Surguicea* (Err. 1646). Uztarrozeko azpieuskalkian *Baracea* (Uzt. 1768), *Lagunicea* (1345; *Aguincea* 1682).

-*zu*: atzizki multzokaria (cf. Mitxelena 1953 § 622). Erronkariko toponimian *Vizcanzu* (1611).

### 3. ELKARKETA

Lekuizen elkartuetan maizenik agertzen diren hitzen artean garrantzitsuenak egongunea zehazteko erabiltzen direnak dira. Elkarketaren osagai hauek aurkientza baten leku izendatzean inguruan dagoen beste gune bat aipatzen dute, leku horrekiko tokia zein den esanez aurkientzari izena ematen diotearik. Hona hemen Erronkaribarreko toponimian, gehien erabiltzen direnak:

*Alte*: orok. *alde*; ‘albo, aldamen, alderdi’ (Sarasola 1996, s.v. ‘alde’; cf. Mitxelena 1953 § 33). Alde honetako toponimian hitz honek mugatzairela hartzen du: -*altea*. Bidankozeko azpieuskalkiko toponimian *Pilaaltea* (Bid. 1710), *Escaurialtea* (Bur. 1636) eta *Errotaltea* (Gar. 1631). Urzainkiko azpieuskalkiko toponimian *Cibialtea* (Urz. 1650) eta *San Juan Altea* (Err. 1787). Uztarrozeko azpieuskalkiko toponimian *Arraltea* (Uzt. 1730) eta *Bordaltea* (Izb. 1579). Deitura baten zati denean ez du mugatzailerik ametitzen: *Equialt* (Uzt. 1525), *Elicalte* (Gar. 1612; Bur. 1654).

*Arte*: ‘leku bitartea’ (Sarasola 1996, s.v. ‘arte’), ald. *tarte* (*bitarte*); cf. Mitxelena 1953 § 96. Hitz honek, lekuizen elkartu baten bigarren osagaia denean, mugatzairela hartu ohi du: -*artea*<sup>31</sup>. Bidankozeko azpieuskalkian *Vidangoz artea* (Bid. 1628), *Yriartea* (Bid. 1623), *Vagartea* (Gar. 1590). Urzainkiko azpieuskalkian *Ugartea* (Urz. 1611), *Arrartea* (Err. 1616). Uztarrozeko azpieuskalkian *Burguiartea* (Uzt. 1588), *Arrartea* (Izb. 1567). Kasu askotan

<sup>31</sup>— Uztarrozen *Burguiarte* (1612) eta Bidankozen *Vidangozarte* (1636) ditugun arren, ez dirudi jatorrizko formak direnik. Bestalde, azpimarratzeko da mugatzairela ezabatzen duten bi kasu hauetan toponimo nagusiak aipatzen direla (izen bereziak, mugatzailerik gabekoak). Orobak, toponimo nagusien azentua nabarmendu nahi izanak bigarren osagaiaren azentuaren hidutura eta, ondorioz, mugatzairearen ezabaketa eragin zezakeen.

lekuizen elkartuaren lehen osagaia dugu, ondoan leku genitiboaren deklinabide atzizkia duelarik: *Artecoegua* (Bur. 1625), *Artecocharra* (Gar. 1620), *Artemcomendia* (Izb. 1563). Deituretan, mugatzailerik gabeko forma dugu kasu guzietan: *Ytarte* (Bid. 1626), *Iriarte* (Bur. 1960), *Huarte* (Err. 1626), *Gollart* (Err. 1612), *Gollarte* (Izb. 1621), e.a.

### *Barne* (ik. infra, *barren*)

*Barren*: ‘barrua’, toponimian ‘beheko aldea’ (Mitxelena 1953 § 133): *Iribarren* ‘beheko auzoa’. Urzainkin eta Bidankozene mugatzairela gorde duten izen bereko bi lekuizen jaso dugu (*Yribarrena*, Urz. 1615, eta bere homofonoa, Bid. 1658). Gainerako kasuetan mugatzairela galdu da: *Abarren* (Bur. 1644), *Iribarren* (Uzt. 1655; Urz. 1672). Jakina, gauza bera gertatzen da beste hitz bat elkartzean *Yrauarrensajeta* (Uzt. 1630), *Yribarren Seysa* (Uzt. 1652). Bestalde, *barne*, aipatu hitzaren aldaera, oso hedatua dago Erronkaribar osoan, gehienetan mugatzailerik ez duelarik: Bidankozeko toponimian *Yribarne* (1644), Urzainkikoan *Yribarrne* (1584); Uztarrozekoan *Yribarne* (1614); *Garden*, ordea, mugatzairearekin dokumentatzen da *Iribarnea* (1672). Deituretan, berriz, orain arte erakutsi den usarioaren aurka joaz, era mugatuau aurkitzen dugu: *Barrena* (Err. 1616; Bid. 1628; Bur. 1648).

### *Beiti* (ik. infra, *goiti*; antonimoa)

*Gain*: ‘gailurra, tontorra’ (Mitxelena 1953 § 248). Halaber, ‘azalera, gainaldea’. Erronkaribarreko toponimian, oro har, bustidura ez da gauzatzen eta mugatzairela hartzeaz gainera, hitzaren eta mugatzairearen artean *e* epentetiko bat, inesibo zaharretik eratorria, tarteka daiteke: -*ginea*. Burgiko toponimian *Argayneña* (1655). Urzainkikoan *Urralegui-gaztuluginea* (1802; *Gaztulugáinea*, info.) eta Izabakoan *Ardibidegaynea* (1597). Bokal epentesirik gabe: -*gina*. Uztarrozeko toponimian *Mulidoyaco-gaina* (Uzt. 1859), *Ochogorrico-gaina* (id.), *Chardacaco-gaina* (id.), *Gastarrico-Gaina* (Uzt. 1928). Esanak esan, badira, halaber, aldaera bustiak: *Izaban*, -*gañea* (*Ardibidegañea*, 1563), Uztarrozen eta Urzainkin, -*gaña* (*Bezulagaña*, Uzt. 1778 eta *Urralguigaztugaña*, Urz. 1715). Bestalde, lekuizen elkartuaren lehenengo osagaia izan daiteke: *gain-* (*Gainbea*, Bid. 1842; *Gaineko Berreinze*, Bid. 1974). Bukatzeko, aztertzen ari garen hitzaren ablatiboa elkartetaren bigarren osagaia izan daiteke, kasu honetan mugatzairela hartzen duelarik: -*ganti + mug.* (*Largayntia*, Urz. 1615; *Largaintia*, Err. 1836; Bid. 1892; *Argayntia*, Err. 1634).

*Gibel*: ‘atzeko aldea’ (Mitxelena 1953 § 278)<sup>32</sup>. Erronkariko toponimian mugatzairela hartzen du kasu guzietan: -*gibela*. Bidankozene Erronkarin *Arguibela* (Bid. 1345; Err. 1427), Uztarrozen *Murculluguibela* (Uzt. 1654), *Garagardoy Guibela* (1806). Bidankozene Erronkarin *e* epentetiko bat tartekatu ohi da mugatzairearen aurrean: *Torreguibelea* (Err. 1636), *Aranguibelea* (Bid. 1898). Gorago esan bezala, tartekatu den bokal epentetiko hori inesibo zaharraren arrastoa dugu, zenbait kasutan mugatzailerik ez dagoen arren bokala gorde delarik: Erronkariko *Argubele* (Err. 1616) eta Uztarrozeko *Murguible guibela* (1676; *gibele(a)* eta *gibela* aldaerak batzen dituen toponimoa).

<sup>32</sup>— Eta, jakina, ‘behazuna darion erraia’.

*Goi*: ‘edozein gauzaren barrenean, lurretik urrunen dagoen aldea; gailurra...’ (Sarasola 1996, s.v. ‘goi’). || 1) *goi(h)en* ‘garaiena’, ‘zerbaiten goiko aldea edo ertza’ (Sarasola 1996, s.v. ‘goien’); ‘[el] de más arriba’ (Mitxelena 1953 § 284). Erronkariko toponimian mugatzailea hartzen du: *-goiena*. Bidankozeko azpieuskalkiko toponimian *Vbarr Goyena* (Bid. 1345), *Landagoiena* (Bid. 1725) eta *Miralde Goiena* (Gar. 1718). Urzainkiko azpieuskalkiko toponimian *Yrigoyena* (Urz. 1612) eta *Yrigoya* (Err. 1648). Uztarrozko azpieuskalkiko toponimian *Yrigoyena* (Uzt. 1652), *Uchurgoyena* (Uzt. 1659), *Çurugoyina* (Izb. 1678) eta Uztarrozko toponimo nagusiaren izen osoa: “la villa de Uztarroz Goyena” (1619). Zenbait kasutan mugatzailearen aurrean inesibo zaharraren arrastoak den *e* epentetikoa ezar daiteke: *Yragoyenea* (Urz. 1617). Halaber, lekuizen elkartuaren lehenengo osagaiaren lekua har dezake: *Goyentableta* (Urz. 1571). Bestalde, deiturei dagokienez, bigarren osagaiaren lekuan dagoenean mugatzailerik gabe dokumentatzen da: *Echagoyen* (Bid. 1623; Err. 1626), *Echegoyen* (Err. 1629), *Hechagoyen* (Err. 1626), *Hechegoyen* (Err. 1626); baina deituraren osagai bakarra bera denean, mugatzailea hartzen du: *Domingo Goyena* (Err. 1629), *Maria Goyena* (Bur. 1653), *Miguel Goyena* (Uzt. 1655). || 2) *Goiti*: ‘gora, garaia’ (Sarasola 1996, s.v. ‘1 goiti’). Mitxelenaren iritziz (1953 §§ 285, 556.2), *-ti* atzizkiak ‘lekua’ adierazten du: *Barrutia* (*Barrundia*), *Beitia*, *Goitia*, *Urrutia*, e.a. Erronkariko toponimian *Ybargoyti* (Err. 1631), Izabakoan *Arracogoiti* (1828) eta bere antonimoa *Araquobeti* (sic., 1345), *Aracobeyti* (1427), *Arroquobetila* (1427), *ARaco beyte* (1563).

*Ondo*: ‘albo, aldamen’; cf. Mitxelena 1953 § 491: “Landucci traduce *ondo* por ‘cabo’: *in urace ondoa*, 1249, por ej. sería ‘cabe el huerto’”. Erronkariko toponimian, berriz, ‘behe’ diera duela dirudi: *Sesetondoa* ‘Seseta aurkientzaren beheko aldean dagoena’. Ibarreko toponimian mugatzailearekin dokumentatzen dugu beti: Bidankozeko azpieuskalkiko toponimian *Sesetondoa* (Bid. 1643), *Abarrue ondoa* (Bur. 1625), *Yriondoa* (Gar. 1624). Urzainkiko azpieuskalkiko toponimian *Ceteguiondoa* (Urz. 1427), *Babariondoa* (Err. 1604). Uztarrozko azpieuskalkiko toponimian *Larreguiondoa* (Uzt. 1806), *Blabarçesorondoa* (Izb. 565). Deituretan, berriz, mugatzailerik gabe: *Capellondo* (Bur. 1645), *Eliçondo* (Bur. 1665).

Lekuizen elkartuetan gehien erabiltzen diren lekuzko osagaiak ezagutu ondoren, karketaren lege fonetikoek osagaien morfema mugetan eragin dituzten aldaketak aipatuko tugu<sup>33</sup>:

a) *Eransketa*: zenbait hitz elkarturen osagaien artean etimologikoa ez den herskari horzkari lo belare ahoskabe bat tarteka daiteke (*sutondo*, *sukalde*, e.a.). Gardeko lekuizen honen suan halaxe gertatu dela dirudi: *Suqe undoa* (1634; ald. *Suqeundoya*); izan ere, cf. Mitxelena 1953 § 547): “su: ‘fuego’: ... *Suquia*. Se presenta con alguna frecuencia en apellidos o apodos edievales ... *Suquea*, siglos XIV y XV”.

b) *Kenketa*: bokalak morfema mugan eror daitezke (Villasante [1974: 37]: *a# → φ*: *aitorde*, *iorde*; *e# → φ*: *esnarri*), baina bokal ahulak ez dira hain erraz ezabatzen. Eskuarki *u* gorde eta *i* bokala bakarrik ingurune banaka batzuetan ezabatu da (adibidez, dardarkari baten ean: *harrate*, *harzubi*, *harpe*, *harmail*, *harlepo*). Bidankozeko azpieuskalkiko toponimian

- Horretarako Fr. Luis Villasanteren *Palabras vascas compuestas y derivadas* liburuan proposatzen diren sailkapen eta adibideak kontuan hartuko ditugu (1974).

*Arrarte* (Bid. 1892), *Arburua* (Bur. 1669), *Arguibela* (Gar. 1753), *Arburola* (Gar. 1669). Urzainkiko azpieuskalkian *Doayn arrarti* (Urz. 1599), *Arrarte* (Err. 1616), *Arrburua* (Err. 1676). Uztarrozko azpieuskalkiko toponimian *Armalla* (Uzt. 1806), *Arluza* (Uzt. 1994), *Arrarte* (Izb. 1568), *Arrmotoa* (Izb. 1675).

Zenbait lekuizenetan hitzen jatorrizko forma gorde da, morfema mugan suertatu bokala ezabatzean hitzaren aldaera zaharra kontuan hartu baita; esate baterako, elkarketan ez da *ardo* hitza erabiltzen, \**ardano* hitz zaharretik eratorritako *ardan-* oinarria baizik (Mitxelena 1977: 301, 151): *Ardanbidea* (Bur. 1657) eta *Ardan Saisa* (Uzt. 1806); jakina, eratorpenean gauza bera gertatzen da: *Ardanceta* (Bur. 1896). Bilakaera bertsuko beste oinarri hauek ditugu: Urzainkin *organ-* (<*\*organa*): *Organidea* (1802) eta Zuberoako mugan *gaztan-* (<*\*gaztana*): Larrañeko kadastra liburuan, *Gastanbideheco bordaburia* (1832) eta Santa-Grazikoan *Gastanbidelepho* (1838).

c) *Aldaketa*: hitz elkartu baten lehenengo osagaiaren azken bokalak *a* bilakatzeko joera du (ik. supra, A § 1.1e): *Aizagar* (Bid. 1892), *Artadoya* (Bur. 1896), *GardalaSa* (Gar. 1646), *Baga artea* (Urz. 1646), *Echaberri* (Err. 1345), *Osagorria* (Uzt. 1678), *Bagaxiloa* (Izb. 1624).

Erdiko bokalei dagokienez, morfema mugan daudenean *a* bilaka daitezke:

*e# → a*: Bidankozeko azpieuskalkian *Atazaval* (Bid. 1666), *Atabea* (Bid. 1892), *Atablanda* (Bid. 1892; cf. Mitxelena 1977: 126: *Ataburu* eta *Atahuri*.), *Echachecarria* (Gar. 1677), *Echallar* (Bur. 1626). Urzainkiko azpieuskalkian *Atazabala* (Err. 1836). Uztarrozkoan *Esabacocha* (Izb. 1564; *Etxabakoitz*, Iruñeko auzoa).

*o# → a*: Bidankozeko azpieuskalkian *Garden Urzañe ondoa* (1672; cf. *urzo*), *Burgin Basagach burua* (1643; cf. *baso*), *Basari ondoa* (1654). Uztarrozkoan *BasaJejnburua* (1655) eta *Verrabacocha* (1652; cf. *berro*).

Goiko bokalak:

*i, u*: bokal ahulak nekez aldatzen dira<sup>34</sup>; izan ere, bokal hauek egonkorra dira: *Iceibacocha* (Bid. 1892), *Helurribacocha* (Bur. 1655), e.a.

Kontsonanteei dagokienez, morfema mugan aldaketak gerta daitezke: 1) *n# → r*: Uztarrozen *Jaureguizabala* (1806; cf. *jaun*), Zuberoako mugan, Santa-Graziko kadastra liburuan *Oyarçabal* (1914; cf. *oihan*), Larrañen *Oyharreburia* (1832)<sup>35</sup>. || 2) *r# → g, h*: Bidankozeko azpieuskalkian *Hualderna* (Bid. 1974), *Ugañay* (Bur. 1625). Urzainkikoan *Ugartea* (Urz. 1583), *Huartera* (Urz. 1656) eta *Gualderna* (1992). Uztarrozkoan, Izaban *Ugaxiloa* (1624).

34.– Halaz guztiz, garapen hau ez da guztiz ezezaguna; Villasantek (1974: 38) adibide hauek gogora ekartzen ditu: *katakume, katanarru*.

35.– Axularrengan, *Belhaurikatu* (Ax. 122; Villasante 1974: 38); euskaraz ezaguna den beste aldaketa bat: *n → t*: *Jatordu, Jatetxe* (cf. *jan*).

#### d) Kenketa eta eransketa:

Ondoko kasuetan lehenengo osagaiaren azken silaba galdu eta, bere ordez, horzkari ahoskabe bat garatu da:

-di# → t: *Artaguia* (Uzt. 1614; cf. *ardi*), *Ytoleta* (Urz. 1802; Izb. *Itoleta*, 1974; cf. *idi*). Alabaina, aldaketa ez da beti gertatzen; aitzitik, hitz batzuk (esate baterako, *mendi*, *aldi*, *hordi*) egonkorrik direla dirudi: *mendizain*, *aldigaitz*, *hordigarri* (Villasante 1974: 39). Erronkarin *Mendibelça* (1596), *Mendigach chiquilla* (1663), Izaban *Mendigacha* (1581), Garden *Mendichaco* (1850) eta *Mendijaco* (id.). Halarik ere, salbuespenaren salbuespen, *MenteJaco* (Gar. 1711) eta *Mentartea* (Urz. 1802) lekuizenek gorago aipatu erregela betetzen dute. Cf. Mitxelena 1953 § 438: “*Mentineta*, *Mentinueta* en 1094, actual *Mendinueta*, Nav.”.

-ge# → t: *Erretolaçe* (Uzt. 1630) eta *Erretola* (Izb. 1600); cf. Villasante 1974: 39.

Kontsonante afrikatuak herskari ozenekin bat egitean frikari bilakatzen ziren, igurzkariak ahoskabetzen zirelarik:

-ts, -tz# + b, d, g → -s, -z# + p, t, k: Bidankozeko azpieuskalkiko toponimian *Aristoya* (Bid. 1713), *Haristoya* (Bur. 1896), *Arispea* (Bur. 1859). Urzainkikoan, *Areztoya* (Err. 1638), *Ariztoya* (Err. 1631). Uztarrozkoan *Aspea* (Uzt. 1806; cf. Villasante [1974: 40]: *haitz goitia* > *Azkoitia*, *haitz beheitia* > *Azpeitia*, *haitz gorri* > *Aizkorri*, *bihotz bera* > *bihozpera*), *Asperro* (Uzt. 1704) eta *Auxpidea* (Izb. 1572; *Auchpidea*, 1610). Halaz guztiz, zenbait kasutan herskari ozena gorde da; izan ere, Bidankozen *Aribákotxa* (1992); Urzainkiko azpieuskalkian *Archbacocha* (Urz. 1640) eta *Arisbacochea* (Err. 1714).

#### e) Kenketa eta aldaketa:

Lehenengo osagaiaren azken silaba dardarkariaz hasten bada bokala galdu eta kontsonantea alda daiteke, alboko apiko-albeolarea garatzen delarik.

Izan ere, -ri → l bilakaera ezaguna da alde honetako toponimian: *Erronkari* ibarrari erdaraz *Roncal* deitzen diote, Zaraitzuko *Igari* herriari *Igal*, Ansoko ibaiari *Veral*, herriaren behialako izena *Berari* zelarik. *Azeri* hitzak (ald. *axeri*, *axari*) aldaketa hau jasan zuela dirudi: *Asellarra* (Uzt. 1806) eta *Axelagua* (1992)<sup>36</sup>, baina aldatu gabeko forma da gehien dokumentatzen dena: *Aciari veroqui* (Uzt. 1630), *Asariberoqui* (1806), e.a. Cf. Villasante (1974: 40): *bazkari* (*bazkaloste*), *gari* (*galburu*, *galeperra*), *eri* (*elbarri*), *afari* (*afalondo*), *gosari* (*gosaldu*).

Zenbait hitz, ordea, hagitz egonkorrik dira; esaterako, (h)iri: *Yriartea* (Bid. 1651), *Iriburia*, (Gar. 1850), *Iriondoa* (Bur. 1652), *Yribarrena* (Urz. 1615), *Yrigoyna* (Err. 1648), *Yribarne* (Uzt. 1614), e.a. Cf. Villasante 1974: 40.

Morfema mugetan agitzen diren kenketa eta aldaketei dagokienez, ondoko kasuak aipa daitezke:

36.– *Axalkoba* Arantzazuko toponimoa dugu. Cf. Villasante 1974: 40; egile honek Kandido Izagirre (1970) lexikografoaren lana aipatzen du.

-di# + b: Erronkariko toponimian talde hau gorde zen: *Ardibidegaynea* (Izb. 1597). Orobat, Larrañen *Ardibidegi*, baina Santa-Graziko toponimian garatu zen: *Arpide Sargia*, *Arpideko Ibarra* eta Eretako mugan *Arpidia*. Cf. Villasante 1974: 40; -gi#, -di# + b, d, g → p, t, k: *bekain* (< *begi* + *gain*), *okin* (< *ogi* + *gin*), *arkazte* (< *ardi* + *gazte*), *zalpurdia* (< *zaldi* + *burdi*), e.a. Burgiko *Barcainea* (1916) toponimoaren kasuan, belarearen ahoskabetzearen arrazoia hemen izan genezake apika.

-bi# + b → p: *Zipidejabalcoa* (< *zibi bide zabalkoa*; Izb. 1828).

#### C) Toponimiaren mugak epilogo modura

Artikulu honen azken atalasera heldu gara. Gai batzuk aipatu gabe utzi behar izan ditugu, nahitaez, toponimiaren eremutik at geratzen zirelako. Adibidez, aditzaren morfologia nekez (*Arrasargia*, Izaba 1856; *Landa sargua*, Uztarroze 1630; cf. *Aphez Jauscaguia*, Santa-Grazi 1914), beste kasuetan, herriak eta herri-etimologiak zentzu osoko aditz jokatuak entzun nahi ditu aditzik ez dagoen lekuaren (*Aytudugu*, Urz. 1664) baina, bistan da, toponimiak ezin digu behar adinako datu eman gai honen gainean doiaz aritzeko<sup>37</sup>.

Joskerari dagokionez gauza bera esan genezake; toponimiaren bidez izen sintagmaren egitura batzuk aipa ditzakegun arren, zenbait sintagma eta lotura ikertu gabe utzi beharko dira, ezinbestean, onomastikaren arlo honen eremutik at geratzen baitira (όνομα, ‘izena’): I) *Ilag*, + I: Izenlaguna eta izena jabego genitiboaren edota leku genitiboaren bitartez lotzen dira: *Torresenborda* (Err. 1836), *Artecomendia* (Izb. 1563). II) I + Iond.: Izena eta adjektiboa (izenondoa) batera emanez lekuizen elkartuak sortzen dira; esaterako, *Gambruzandia* (Urz. 1802), *Gambruchiquia* (1802), *Urdaspeandia* (Bur. 1718), *Vrdanzpe chiquerra* (1642)<sup>38</sup>. Beste adibide batzuk: *Landazuria* (Izb. 1587), *Presazarra* (Urz. 1994), *Landalonga* (Uzt. 1345). III) I + I: Bi izen elkarren artean lotzeko bata bestearen ondoan jar daitezke justaposizioaz, bigarren izena ardatza delarik: Izaban *Belagua Landazuria* (1587), erdaraz *Landazuria de Belagua* (1828); *Belagua Soro ondoa* (1675), erdaraz, *Sorondoa de Belagua* (1828). Erronkarin *Cherralla borda* (1651), erdaraz *Borda de Txerrail* (1992).

Erronkariera, mugaldeko hizkera, bere ezaugarri berezkoengatik, auzoko euskaren eta inguruko errromantzeen eragin anitzengatik (mendeetan zehar gaskoia, nafar-aragoiera, frantsesa eta gaztelera ondoan izan baititu), guztiz euskalki berezia genuen. Zaraitzuerarekin, aezkerarekin eta, batez ere, zubererarekin zituen antzekotasunak ahantzi gabe, gainerako euskalkiengandik erabat aldentzen zen; egiaz, maisuaren iritziz (Mitxelena, 1954: 274): “quizá sea la más divergente de las variedades vascas”.

37.– Honetaz zerbait ikasi nahi duenak ezinbesteko du Pedro de Irizar (1992c) hizkuntzalariak erronkarieraren aditzaren morfologiaz idatzi liburua, bertan aurkituko baititu, aditza dela eta, bilatzen dituen erantzunak.

38.– Erronkarieraz *txiki* hitzak ‘gutxi’ adiera zuen, ‘txiki’ adierazteko *txiker* hitza erabiltzen zelarik: “Ha cer vizia! tia Juana maitia, amar urte *chiquiago* bagunu!” (Julián Gayarre; Irigarai 1974: 41); “ez bítoker egín lán ándirik... *txíki* sólo” (Antonia Anaut; Artola, 1977); “orái bēi, bēi solo kében, bei; àrdírik txíki, txíki... gútti, gútti!!” (id.). Kasu honetan, *txiker* hitzak ‘baxu’, eta *andia-k* ‘altu’ esan nahi dutela dirudi: cf. *Vrdanzpe baxo* (1662) eta *Hurdanzpe Alto* (1675).